

Ordizian, 2012ko martxoaren 28an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

| | |
|---------------------------------------|----------------------|
| Belén Maiza Urrestarazu andrea | BILDU taldea |
| Izaro Intsausti Zinkunegi andrea. | BILDU taldea |
| Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna | BILDU taldea |
| Edurne Gutierrez Jauregi andrea | BILDU taldea |
| Imanol Iturrioz Lauzirika jauna | BILDU taldea |
| Iban Asenjo Garde jauna | BILDU taldea |
| Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna | PNV taldea |
| Judith Otegi Lopez de Murillas andrea | PNV taldea |
| Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna | PNV taldea |
| Arantzazu Garin Garmendia andrea | PNV taldea |
| Bittor Bolinaga Alzelai jauna | PNV taldea |
| Iñaki Dubreuil Churruca jauna | PSE/EE (PSOE) taldea |

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jauna

ITZULTZAILEA:

Maialen Moreno Zubeldia andrea

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

Bittor Bolinaga jauna 4. puntuan bertaratu da saiora

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

| | |
|--|---------|
| 1.- 2012ko urtarrilaren 26an egindako Ohiko deialdiko akta onartzea. | 4.orr. |
| 2.- Ordiziako BILDUK aurkeztutako mozioa, Tibeteko herriaren giza eskubideen eta askatasunen alde. | 4.orr. |
| 3.- Ordiziako BILDUK aurkeztutako mozioa GAROÑAKO ZENTRAL NUKLEARRAREN itxiera dela eta. | 7.orr. |
| 4.- Ordiziako BILDUK aurkeztutako mozioa, Lodosako IBAIALDE ikastolari laguntza emateko. | 9.orr. |
| 5.- Ordiziako BILDUK aurkeztutako mozioa Espainiako Gobernuak argitaratutako lan-merkatuaren erreforma Dekretuaren aurka. | 11.orr. |
| 6.- PSE-EE (PSOE)-k aurkeztutako mozioa atez ateko zabor bilketaren inguruan. | 15.orr. |
| 7.- PSE-EE (PSOE)-k aurkeztutako mozioa Emakumearen nazioarteko egunaren inguruan. | 20.orr. |
| 8.-2012 ekitaldirako aurrekontuak. | 25.orr. |
| 9.- 2012 ekitaldiko Plantilla Organikoa. | 37.orr. |
| 10.-2012 ekitaldiko lanpostuen zerrenda. | 38.orr. |
| 11.- 2011 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea. | 40.orr. |
| 12.- 2011ko gastuak 2012ko aurrekontuan sartzea eta dagokion kreditu gehigarrien espediente onartzea. | 43.orr. |
| 13.-Udal taldeen eta zinegotzien dietak eta ordainak murriztea. | 45.orr. |
| 14.- Euskara sailak diru-laguntzak emateko indarrean dituen oinarriak aldatzea. | 47.orr. |
| 15.- Aparkaldi mugatua arautzen duen Ordenantza aldatzea. | 48.orr. |
| 16.-H.I.E. Garbiguneko arau subsidiarioen aldaketa jakin baterako hirigintza hitzarmena. | 49.orr. |

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

- Tabernen mahaitxoan eta terrazen neurriak.
- Auzoetako bizilagunek Udaletxeari egindako iradokizunak.
- +Euskari 09 programaren diru-laguntzen inguruko 2009ko dekretuaren informazioa eskatu da.
..... 51.orr.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19,10ak.

AMAIERA ORDUA: 22,20ak.



Batzordeburuak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez:

1.- 2012ko urtarrilaren 26an egindako Ohiko deialdiko akta onartzea.

Proposamena

2012ko urtarrilaren 26ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, EAJ/PNV 4, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du:

2.- Ordiziako BILDUK aurkeztutako mozioa, Tibeteko herriaren giza eskubideen eta askatasunen alde.

Maiza and.

BILDUK aurkeztutako mozioa irakurri da.

Proposamena

1949an Txinako herri-errepublikaren indar armatuak Tibet herrian sartu ziren indarrez. Tibet, ordura arte eta historian zehar, herrialde independente zen.

Okupazio horren ondoren, krudeltasun ikaragarria etorri zen eta konta ezinak izan dira sarraskiak, torturak, kartzelaratzeak eta herritarrak esterilizatzeak. Sistematikoki indarrez praktikatu dira abortuak eta ondare kulturala, erlijioa eta ekologikoaren suntsipena lortu nahi izan da.

Tibeteko herriak gogor ekin dio erresistentziari eta tinko egin dio uko beste inoren mende egoteari; horren aurrean agintari txinatarrek "azken konponbide" bat asmatu eta eraman zuten aurrera 80. hamarkadan: "diluzio" bidezko benetako garbiketa etnikoa, herritar txinatarrek Tibetean bizitzen jarritz.

40. hamarkadan gehienez ehunka batzuk bakarrik ziren herritar txinatarrek eta gaur egun 7 milioi dira Txinako Han etniakoak. Eta herritar tibetarrak gutxiengoa dira euren herrian bertan.

Indar okupatzaileen helburua hauxe da: 2020. urtean Tibetean 40 milioi txinatar izatea. Tibeteko herria, bertako hizkuntza, kultura, erlijioa, ohiturak, tradizioak historiako liburuetara zokoratuta geratuko dira betiko.

Denbora bukatzen ari da. Oraindik astia dugu genozidio isil hau geldiarazteko. Txinako inperio diktatoriala geratu beharra dago, daraman heriotza- eta suntsitze-proiektua geldiarazi beharra dago.

Sortu beharra dago, Tibetetik, bere askatasunetik eta bere askapenetik; 1.3 milioi gizon eta emakume txinatarren askatasunaren eta askapenaren lehenengo fruituak, haien giza eskubideen eta askatasunen errespetua irabaz dezaten Txinan.

HORREGATIK ESKATZEN DIEGU

Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari,

- Europako Legebiltzarrak joan den 2000ko uztailaren 6an eman zuen Ebazpenaren arauak jarrai ditzatela, eremu guztietan (politika, ekonomia, gizarte eta kultura mailan) herri tibetarraren autonomia osoa bermatuko duen akordioa ahalbidetuz; salbuespen bakarrak defentsako politika eta kanpo-politika izango lirateke.
- Hiru urteko epemugaren ondoren, erbestean dagoen Tibeteko Gobernuak onar dadin Europako Legebiltzarrak egin duen proposamena onar dezatela.
- Tibet herrirako Europar Batasuneko ordezkari bereziaren izendapena babestuz 1998ko urtarrilaren 16ko eta 2002ko apirilaren 11ko Europako Legebiltzarrak eman zituen Ebazpenei berehala erantzun diezaietela.

Azkenik, 2012ko martxoaren 10ean udaletxeko balkoian Tibeteko bandera jar dadila **proposatzen da**.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Maiza and.

Xedapenen azken paragrafoa kendu egingo dela adierazi du, zentzurik ez duelako.

Beraz, horrela geratuko litzateke proposamena:

Proposamena

1949an Txinako herri-errepublikaren indar armatuak Tibet herrian sartu ziren indarrez. Tibet, ordura arte eta historian zehar, herrialde independente zen.

Okupazio horren ondoren, krudeltasun ikaragarria etorri zen eta konta ezinak izan dira sarraskiak, torturak, kartzelaratzak eta herritarrak esterilizatzak. Sistematikoki indarrez praktikatu dira abortuak eta ondare kulturala, erlijiosoa eta ekologikoaren suntsipena lortu nahi izan da.

Tibeteko herriak gogor ekin dio erresistentziari eta tinko egin dio uko beste inoren mende egoteari; horren aurrean agintari txinatarrek "azken konponbide" bat asmatu eta eraman zuten aurrera 80. hamarkadan: "diluzio" bidezko benetako garbiketa etnikoa, herritar txinatarrek Tibetean bizitzen jarriz.

40. hamarkadan gehienez ehunka batzuk bakarrik ziren herritar txinatarrek eta gaur egun 7 milioi dira Txinako Han etniakoak. Eta herritar tibetarrak gutxiengo dira euren herrian bertan.

Indar okupatzaileen helburua hau da: 2020. urtean Tibetean 40 milioi txinatar izatea. Tibeteko herria, bertako hizkuntza, kultura, erlijioa, ohiturak, tradizioak historiako liburuetara zokoratuta geratuko dira betiko.

Denbora bukatzen ari da. Oraindik astia dugu genozidio isil hau geldiarazteko. Txinako inperio diktatoriala geratu beharra dago, daraman heriotza- eta suntsitze-proiektua geldiarazi beharra dago.

Sortu beharra dago, Tibetetik, bere askatasunetik eta bere askapenetik; 1.3 milioi gizon eta emakume txinatarren askatasunaren eta askapenaren lehenengo fruituak, haien giza eskubideen eta askatasunen errespetua irabaz dezaten Txinan.

HORREGATIK ESKATZEN DIEGU

Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari,

➤ Europako Legebiltzarrak joan den 2000ko uztailaren 6an eman zuen Ebazpenaren arauak jarrai ditzatela, eremu guztietan (politika, ekonomia, gizarte eta kultura mailan) herri tibetarraren autonomia osoa bermatuko duen akordioa ahalbidetuz; salbuespen bakarrak defentsako politika eta kanpo-politika izango lirateke.

➤ Hiru urteko epemugaren ondoren, erbestean dagoen Tibeteko Gobernuak onar dadin Europako Legebiltzarrak egin duen proposamena onar dezatela.

➤ Tibet herrirako Europar Batasuneko ordezkari bereziaren izendapena babestuz 1998ko urtarrilaren 16ko eta 2002ko apirilaren 11ko Europako Legebiltzarrak eman zituen Ebazpenei berehala erantzun diezaietela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 7, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 4 (EAJ/PNV 4)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

3.- Ordiziako BILDUK aurkeztutako mozioa GAROÑAKO ZENTRAL NUKLEARRAREN itxiera dela eta.

Asenjo in.

Proposamena irakurri du:

Proposamena

2006. urtetik Garoñako zentral nuklearra Espainiar Estatuko zentralik zaharrena da.

1971. urtean jarri zuten martxan eta 40 urteko balio-bizitzarako izan zen diseinatua, epe hori iazko martxoan gainditu zuelarik. Bere jardueran behin eta berriz izan dituen matxurak zentralak segurtasun arazo larriak dituenaren froga dira, eta honi, korrosioaren ondorioz sortutako pitzadura arazoa gehitu behar zaio.

Zentrala lanean jarraitzeak onartezina den arriskua suposatzen du ingurugiroarentzat eta segurtasun eta osasun publikoarentzat, arriskuan jartzen baititu istripu kasuan eraginak sufrituko lituzkeen inguruan bizi diren milioika pertsonen bizitzak. Arrisku guzti hauen jabe, Euskal Herriko, Arabako eta Gasteizko gizarteak, azken urteotan, behin eta berriz eta modu masiboan eskatu du zentralaren itxiera. Instituzioetatik ere, Gobernu Autonomikoak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak, azken hamarkadan sarri azaldu dira gai honen inguruan, Estatu Espainiarreko Gobernuari zentralaren itxiera behin eta berriz eskatuz.

Frogatuta dago Garoñaren ustiapen baimenaren luzatzeak ez daukala justifikaziorik, izan ere, zentralaren ekarpen energetikoa honezkero bestelako sistema berriztagarriek betetzen baitute. Hala ere, azken urteotan Espainiar Estatuko Gobernu ezberdinek zentralaren bizitza luzatzen tematu dira, ingurugiroa eta milioika pertsonen bizitzak arriskuan jarritz. Halako erabaki bat Espainiar Estatuko Gobernuak, zentralaren jabe diren, konpainia elektrikoekiko interes ekonomikoekiko mesede gisa baino ezin da ulertu.

Ekonomia ekologizatzea premiazkoa eta beharrezkoa da. Gure lurraldea jasangarria egiteak, Garoñaren jardueraren luzapenak suposatzen duen arrisku bizia ekiditera eraman behar gaitu. Era berean, energia iturri berriztagarrien aldeko apustu argi eta atzeraezina egiteaz gain, gaur egungo energia kontsumo maila birplanteatu behar dugu. -Guzti hau kontutan izanda, honako adierazpena aurkezten dugu ORDIZIAko Udalaren Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onartua izan dadin:

- Udal honek Espainiar Estatuko Gobernuari eta bere Industria, Energia eta Turismo Ministerioari Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra berehala itxi dezaten dei egiten die.

- Udal honek Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra geldiaraztea xede duen edozein ekimen babesteko konpromisoa hartzen du.

- Udal honek zentral nuklearrek suposatzen duten arriskuen inguruko lanketa dibulgatzailea indartu eta sustatzeko konpromisoa hartzen du.

- Kontsumoaren gutxitze eta energia iturri berriztagarrien erabileran oinarritutako energia aurrezpenaren aldeko apustu garbia egiten dugu. Energia sistema publiko batetik abiatuz.

- Honako Osoko Bilkuraren akordioa posta bidez igorriko zaie Espainiar Estatuko Gobernuko presidente den Mariano Rajoyri , Industria, Energia eta Turismo Ministro den Jose Manuel Soriari eta zentralaren %50aren jabe den Iberdrola konpainia elektrikoari.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jna.

Proposatutako mozioarekin oinarrian ados daudela adierazi du, baina adierazpenean proposatzen diren 5 puntuak jarri beharrean, bere taldeak puntuetako bat kentzea proposatzen duela, zehazki hirugarren paragrafoa: zentral nuklearrek dakartzaten arriskuen inguruko dibulgazio lana sustatu eta bultzatzekoa Udalari kostu bat suposatzen badio.

Dubreuil jn.

Mozioaren alde bozkatuko duela esan du, bere taldea zentrala ixtearen alde eta 2013an ixteko planifikazioaren alde egon delako beti, eta baita itxieratik eratorritako kalteei edo ondorioei aurre egiteko plan ekonomikoaren alde ere.

Adibidez, energia berriztagarrien aukera ezinbestekoa dela uste du.

Asenjo jn.

Santamaria jaunari erantzun dio Osoko Bilkurarako Gai-zerrendan sartuko diren puntuak erabakitzekeo jarritako Osoko Bilkurarako Gai-zerrendan, alderdi politikoaren arteko mozioa adostu zitekeela.

Santamaria jna.

Adosten ez bada, borondate faltagatik dela esan du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (PNV 7, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 4 (EAJ/PNV 4)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 4. puntuaren berri eman du:

4.- Ordiziako BILDUK aurkeztutako mozioa, Lodosako IBAIALDE ikastolari laguntza emateko.

Imanol Iturriotz jn.

Bere taldeak aurkeztutako mozioa irakurri du.

Proposamena

Lodosa-Sartagudako Ibaialde ikastola oso egoera ekonomiko larrian dagoela iragarri zigun duela gutxi Ikastolen Federazioak.

Ibaialde ikastolak duela 25 urte hasi zuen bere ibilbidea. Gaur egun, 74 ikasle ditu, eta ikasle gehiago erakartzea du aurreikusita, baina "eremu ez-euskaldunean" kokatuta egotea oso eragozpen handia da aukera hori gauzatzeko. Ikastolak urtean 70.000 euroko zenbatekoari egin behar dio aurre zentroan egindako obrak finantzatzeko. Gainera, itundu gabe dauden bi ikasgelen kostua 100.000 eurora iristen da urtean, eta horrek kolokan jartzen du horien etorkizuna.

"Eremu ez-euskaldun" horretan kokatuta dauden ikastolen egoera oso zaila da, eta, orain arte, gurasoen eta irakasleen ahaleginek eta gainerako euskaltzaleen elkartasunak bermatu dute ikastola horien iraupena.

Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politikaren ondorioz iritsi da Ibaialde ikastola egoera ekonomiko horretara. Politika diskriminatzaile horrek hainbat mailatan bereizten ditu Nafarroako herritarrek, eta urratu egiten du euskaraz ikasteko eta bizitzeko eskubidea.

Nafarroako Euskararen Legeak ezartzen duen eremu-bereizketak ito egiten ditu ekonomikoki hegoaldeko ikastolak, eta ia ezinezkoa da euskaraz irakastea eta ikastea. Horrela, beraz, Nafarroako familiek ez dute askatasunik eta berdintasunik seme-alabak matrikulatzeko ikastetxea aukeratzeko garaian.

Hori guztia dela-eta, Ibaialde ikastolak laguntza behar du orain. Horretarako, Ikastolen Federazioak "euro bat, marrazki bat" kanpaina jarri du abian. Kanpaina horretan, Euskal Herriko bazter guztietako ikastola edo ikastetxeetako neska-mutilek marrazki bat egingo dute, eta nahi duenak euro bateko ekarpena egingo du. Ikastetxeetan biltzen diren euro guztiak Ibaialde ikastola mantentzen laguntzeko erabiliko dira.

Dagoeneko udal askok erantzun diote ekimen horri. Zehazki, ekimena abian jartzen duten ikastola edo ikastetxeetan haur bakoitzak jartzen duen euro bakoitzeko kopuru bera jartzeko konpromisoa hartu dute.

Horren ondorioz, eta azaldutako guztia kontuan hartuta, Bilduren Ordiziako udal-taldeak honako mozio hau aurkeztu du eztabaidatzeko eta onartzeko:

1.- Udal honek babes, elkartasuna eta esker ona adierazi nahi dio Lodosako eta Sartagudako Ibaialde ikastolari, 25 urte hauetan haur askori euskaraz ikasteko eskubidea bermatzeko egin duen lanagatik.

2.- Udal hau bat dator Ikastolen Federazioak abian jarritako kanpainarekin, eta konpromisoa hartu du Ibaialde ikastolari laguntzeko. Horretarako, Jakintza ikastolako ikasleek Ordizian bildu duten diru kopuruari euro kopuru bera gaineratuko dio, eta euro horiek guztiak hain egoera ekonomiko larria bizi duen Ibaialde ikastolari laguntzeko erabiliko dira.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7,EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 1 (PSE-EE (PSOE))

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- BILDUK aurkeztutako mozioa lan-merkatuaren erreforma Dekretuaren aurka.

Intsausti andrea

Proposatutako mozioa irakurri du. Euskarazko testuan, 5. puntuan akats bat zegoela adierazi du, xedapenetan Bizkaiko parlamentariak aipatzen baitira, Euskal Herriko parlamentariak esan beharrean.

Proposamena

Otsailaren 11n, Espainiako Erresumako Gobernuak lan-merkatuaren erreformarako Dekretua argitaratu zuen, Estatuaren Aldizkari Ofizialean. Erreforma hori langileen eskubideen aurkako eraso bortitza da. Langile kopurua igotzeko aitzakiaren azpian, erreformaren benetako asmo bakarra ezkututzen da: soldatak eta kaleratzeagatiko kalte-ordainak murriztea.

Kaleratzeko unean langileak dituen eskubideak muturreraino murriztu dira: joan zen mendeko baldintzetara itzuliz, Mariano Rajoyren taldeak doako kaleratze askea berrezarri du kontratuko lehen 12 hilabeteetarako, ia enpresa guztiek, % 99,23k zehazkiago, erabili ahal izango dutena. Hori gutxi balitz, Erresumako Gobernuak beste pizgarri bat eman nahi izan die enpresaburuei kontratu berri horren harira, kontratu hori indartzeko hobariak emango baititu. Ildo beretik, gainerako kontratuak ere murriztu egin dira, urte bakoitzeko 45 eguneko kalte-ordaina desagertu egin baita, urte bakoitzeko 20 eguneko kalte-ordaineko kaleratzea orokortzearekin batera.

Erreforma horrek ezerezean utzi nahi du negoziazio kolektiboaren bitartez orain artean lortutako guztia. Horretarako, langileen ordezkariak eskuak lotu dizkie patronalaren aurrean: enpresa-hitzarmenei lehentasuna emango zaie sektore-hitzarmenen aurretik, ultrajarduera bi urtera bakarrik mugatu da, eta, hori gutxi balitz, enpresek hitzarmena bertan behera uzteko aukera izango dute, hitzarmena indargabetuta utzita. Gainera, enpresaburuek langileen lan-baldintzak nahierara aldatu ahal izango dituzte, ordutegia, kokapen geografikoa edota soldata aldatuz.

Erreforma ez da horretan geratuko, ordea. Gazteei ere eraso egingo die beste behin, batetik, gazteentzako prestakuntza-kontratua 33 urtera arte luzatuko duelako, 481€-ko soldatarekin, eta, bestetik, enpresei gizarte-kotizazioak barkatuko dizkielako. Bestetik, erreformaren eraginez, langileak laneratzeko kudeaketa pribatizatu egin liteke, zeregin hori Aldi Baterako Laneko Enpresen esku utzita.

Argi dago Euskal Herriko langileek ez dutela erreforma hori begi onez ikusten, inondik inora. Horregatik, argi eta garbi aldarrikatu behar dugu Euskal Herriko gizarte- eta ekonomia-politikak erabakitzeko dagokigun eskubidea, eta behar-beharrezkoa dugu eskubide hori baliatzeko tresnak berehala eskuratzea. Gure lan-eskubideak defendatzeko bide bakarra delako.

Aurreko guztia kontuan hartuta, EZ ARAUZKO PROPOSAMEN hau aurkeztu nahi dugu, ORDIZIAko Udaleko OSOKO BILKURAK eztabaidatu eta onar dezan:

1. Batzar Nagusiek edo ORDIZIAKO Udalak lan-erreforma salatu nahi dugu, enpresa-kudeaketa eskasaren eta ekonomia-eredu okerraren ondorioen zama guztia langileen bizkar gainean utzi nahi duelako.
2. Batzar Nagusiek edo ORDIZIAKO Udalak Espainiako Erresumako Gobernuari lan-erreforma lehenbailehen indargabetzea eskatzen diogu.
3. ORDIZIAKO Udaletik Lan Harremanen Euskal Esparrua indarrean jartzea eskatzen dugu, lan-merkatua arautu behar duten legeak erabakitzeko aukera euskal herritarroi emango diguna.
4. ORDIZIAKO Udaletik herritarrei dei egiten diegu martxoaren 29an lan-erreformaren aurka deitutako Greba Orokorrean parte har dezaten.
5. ORDIZIAKO Udaletik Euskal Herriko legebiltzarkide hautetsiei kongresuan eta senatuan lan-erreformaren aurkako botoa ematea eskatzen diegu.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn.

Kontramozio alternatiboa aurkeztu du eta irakurri egin du.

“Otsailaren 10eko 3/2012 Errege Lege-dekretuaren bitartez, Alderdi Popularraren gobernuak presazko zenbait neurri onartu ditu lan merkatuaren erreformarako. Errege Lege-dekretu horrek oso neurri atzerakoak ditu, eta hauek dakartza: banakako eta taldeko lan eskubideak galtzea, kaleratzea merketzea eta kaleratzeko erraztasun handiagoak, eta lan baldintzak prekarizatzea.

Alderdi Popularraren gobernuak sindikatuak erakutsi duten ardurari erreforma neurrigabe eta bidegabearekin erantzun dio, eta ez du enplegua sortzea ekarriko, lan-merkatua prekarizatzea baizik. Enplegua sortzea jarduera ekonomikoa sustatu eta bultzatu behar da, eta ez lan eskubideak murriztu. Gizarte Estatua oso ahulduta uzten du erreformak, eta gure lan harremanen sistemaren mugei erasotzen die.

HORREGATIK GUZTIAGATI,

ORDIZIAko Udaleko udal talde sozialistak mozio hau aurkeztu du osoko bilkuran eztabaidatzeko:

1.- Udalbatzak Estatuko Gobernuak 3/2012 Errege Lege-dekretuaren bidez onartutako lan merkatua erreformatzeko neurriei gogor egin die aurka, atzerakoiak eta bidegabeak baitira eta ez dute enplegua sortzeko balio izango, lana deusezteko eta lan-baldintzak prekarizatzekeo baizik.

2.- Era berean, Udalbatza honek uste du hitzarmen kolektiboen ultrajarduera kentzeko aukera ematea negoziazio kolektiboari erasotze adela, lan baldintzen erregulaziorako iturri nagusia baita”.

Santamaria jna.

Era berean, berak BILDUK aurkeztutako proposamenari beste alternatiba bat proposatzen diola esan du.

"Lan merkatuaren erreforma 3/2012 ELDaren barruan dago, eta berarekin dakar atzera egite larria, langileen oinarrizko eskubideak murrizten ditu, eta enpresari eta langileen arteko harremanak desorekatzen ditu. Testu honekin, enpresariari ahalmen handiagoak ematen zaizkio langilearen txarrerako, eta azken hau ziurgabetasun eta babesgabetasun handiagoan geratzen da. Proposamen honek are gehiago urruntzen du lan merkatuaren arautzea, flexisegurtasun eredu arrakastatsuetatik .

Lanpostuen prekarizatzek ez du lehiakortasun handiagoa eragingo, erreforma gaizki enfokatuta dago. Lehiakortasuna ez da lan baldintzak murriztearekin, soldata eta langileen kaleratzea merkatzeareki lortzen; lehiakortasuna eredu produktiboaren aldaketatik sortarazi behar da, pertsonen prestakuntza eta birziklapenaren aldeko behin betiko apustutik, oreka eta balio erantsi handiagoa eta I+G+B kontzeptuan inbertsio handiagoa egitea ekarriko duen aldaketatik.

Erreforma honek oztopatu egiten ditu Euskadin arautzeko ditugun gaitasunak eta gure erabaki esparrua. Negoziaketa kolektiborako eredu zentralizatailea sustatzen du, autonomiako lan harremanetarako esparruari eraso eginez eta euskal errealitate sindikalaren berezitasunak eta autonomi eremuko lanbide arteko hitzarmen eta akordioak kontuan hartu gabe.

Era berean, eraso egiten zaie Euskadik enplegurako politika eraginkorren inguruan dituen eskumenei. Lege Dekretuak enplegu eta Lanbide Heziketa arloan balio gabetu ziren arau asko berpizten ditu, eta orain, derrigorrez bete beharrekotzat aurkezten zaizkigu. Era honetan, de facto hutsik geratzen da enplegurako politika aktiboen transferentziak zuen eduki garrantzitsua.

Halaber, ELDak ere euskal autogobernuari eragiten dio zergen inguruko euskal autonomia errespetatzen ez delako, lan politikaren partetzat jo ezin diren pizgarriak ezartzen dira, Foru Aldundien eskumeneko zerga politikako tresna diren neurrian ikusi beharrean.

Arestian azaldutakoagatik guztiagatik, EAJ-PNVren Udal Taldeak Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onartzeko aurkezten du honako

MOZIOA

- 1. Ordiziako Udalak 3/2012 Erret Lege Dekretu barruan dagoen lan erreformaren kontrako gaitzespena adierazten du, lehiakortasuna irabazteko helburua duela ezartzen duen arren, lan merkatuaren arautzea modifikatzen duelako eta lan baldintzak eta soldatak balio gabetu eta narriatzen dituelako.*
- 2. Ordiziako Udalak lan harremanetarako marko autonomoa exijitzen du, Euskadin adostutako eta onartutako kontzertazioa, elkarrizketa soziala eta lan araudi propioa egiteko aukera ahalbidetuko duena.*

3. *Ordiziako Udalak enplegurako politika eraginkorren eskumena osorik transferitzea exijitzen du eta zerga eta tributu politikak ez eragozte; honek ahalbidetuko du Euskaditik bertatik enplegua sustatzeko behar diren neurriak garatzea, gure berezitasunak kontuan izanik”.*

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Mozioa PSOErekin adostu nahi izan duela azaldu du, baina ezinezkoa izan dela, lan-harremanak jorratu beharreko esparrua ez delako Espainia, Euskal Herria baizik.

Jarraian, hiru proposamenak bozkatu dira;

PSE-EE (PSOE)-k aurkeztutako proposamenaren bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 1 (PSE-EE (PSOE))
Kontrako botoak: 12 (BILDU 7,EAJ/PNV 5)
Abstentzia: 0

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena ez-onartutzat eman du.

EAJ/PNVk aurkeztutako proposamenaren bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 5 (EAJ/PNV 5)
Kontrako botoak: 8 (PNV 7, PSE-EE (PSOE) 1)
Abstentzia: 0

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena ez-onartutzat eman du.

BILDUK aurkeztutako proposamenaren bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)
Kontrako botoak: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)
Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- PSE-EE (PSOE)-k aurkeztutako mozioa atez ateko zabor biltzetaren inguruan.

Proposamena

Berriki Bildu-ko 34 alkatek, besteak beste gure Udalekoak, hiri hondakinak jasotzeko sistema selektibo berria iragarri dute. Atez atekoak, bere sustatzaileek deitzen duten moduan, edukinontzien sistema kentzea dakar, gaur arte, hondakina osatzen duten zati desberdinak modu garbi eta ordenatuan jasotzea ahalbidetzen duena. Sistema honekin jarraitzea erabaki den udaletan, bosgarren edukinontzia hedatzen ari da. Honek materia organikoa aparte jasotzeko aukera ematen du, berezko tratamendua izan dezan eta ez dadin isuri edo erraustu behar izan.

Atez atekoa jartzeak, ordea, atzerapausoa dakar gure kale eta plazen garbiketan, osasungarritasunean eta baldintza estetikoetan. Era berean, elikadura-kontsumoaren zenbait jarraibide baldintzatu egiten dira, materia organikoa asteko egun jakinetan soilik atera ahal izango delako. Eta birziklatu ezin den zatia, astean behin baino ezin izango da atera.

Sozialistek, gainera, Udalarentzat atez atekoa ezartzeak ekarri duen kostu hazkunde nabarmenari buruz ohartarazi nahi dugu. Langile gehiago beharko dira eta zaborraren tasak nabarmen handituko dira ezinbestean.

Bestalde, gaur egun nabarmena da, Bilduk gobernua duen Gipuzkoako erakundeetan, erabaki duela aurreko legegintzaldian zabor alorrean onartutako osoko planifikazioa gelditzea. Horrek herri eta hirietan bereizketa eginda biltzen hasiko den materia organiko kantitate izugarriei erantzuten hastea ahalbidetuko duten tratamendu lantegi batzuen garapena bertan behera geratzea dakar. Horren partez, Bilduk materia organiko hori ondoko beste lurraldeetara kantitate handitan esportatzea besterik ez du eskaintzen, Nafarroara edo Lapurdira (Iparraldea).

Kudeaketa arazo larri bati aurre egiteko modu hori guztia, inprobisazio bidez, eta Gipuzkoan egiten diren birziklapen maila altuen tabula rasa eginez, oso kezagarria iruditzen zaigu krisi garai hauetan, baliabide ekonomikoak xahutzeko garaian, une kritikoan gauden garai honetan.

Sozialistok materia organikoa bereizita jaso dadin nahi dugu, kalitatezko konposta bihurtu ahal izan dadin, nekazaritzan, hiri parkeetan eta zelaietan bilakatu ahal izan dadin. Baina Gipuzkoako zabortegeak ere itxi nahi ditugu, horrenbeste arazo eta traba sortu dutelako, eta hori guztia kudeaketaren eraginkortasun irizpideetatik lantzea. Baina ez gaude prest atzerapausoa dakarten sistemak ezartzeko, baliabideak alferrik galdu eta indarrean dagoen ingurumen planifikazioari muzin egiten diotenak.

Aipatutako guztiagatik, PSE-EE udal-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

MOZIOA:

Lehena.- Udalbatzak erabateko desadostasuna agertzen du atez ateko hondakin bilketa sistema ezartzearen aurrean, eredu zikin, antiestetikoa, garestia, deserosoa eta ez-eraginkorra delako.

Bigarrena.- Udalbatzak gaur egungo birziklapen atalaseak handitzeko beharra azpimarratzen du, ahal den neurrian, zabortegetara edo balorizazio energetikoko lantegietara eraman beharko den zabor bolumena gutxitzea lortzeko.

Hirugarrena.- Udalbatzak alkateari eskatu dio beharrezko tratamendu lantegiak eraikitzen lagun dezala, materia organiko biodegradagarria Gipuzkoako lurraldean konpostatu ahal izan dadin, zati horren bilketa abian jarri baino lehen. Era berean, gure udalerrian sortutako konpostari lehentasunezko erabilera ematea adostu da, parkeetan, zelaietan eta herri honetako beste espazio berde batzuetan. Hori guztia, bidaia garestiak saihesteko, atmosferara igorpen kutsagarriak eta lurraldetik kanpor materia organikoa garraiatzeko alferrikako bidaietan erregai kontsumoak saihesteko helburuarekin.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Dubreuil jn.

Mozioa atzera bota dadin eskatzen du, hondakinak jasotzeko sistema hori zikinagoa, garestiagoa, deserosoagoa eta ez oso eraginkorra dela uste baitu. Bosgarren edukinontziari bide luzeagoa eskaini behar zaiola uste du, eta gaia nola garatzen joaten den ikusi.

Mozioaren xedapenen hiru puntuak irakurri ditu.

Dubreuil jaunak azaltzen jarraitu du, azken orduan bere taldeak eta EAJ/PNVren taldeak, testu bateratua adostu dutela.

Beraz, Dubreuil jaunak bere mozioa kendu du eta EAJ/PNVrekin adostutakoa aurkeztu du.

EAJ/PNVren eta PSE-EE (PSOE)-ren artean adostutako proposamena

Berriki Bildu-ko 34 alkatek, besteak beste gure Udalekoak, hiri hondakinak jasotzeko sistema selektibo berria iragarri dute. Atez atekoak, bere sustatzaileek deitzen duten moduan, edukinontzien sistema kentzea dakar, gaur arte, hondakina osatzen duten zati desberdinak modu garbi eta ordenatuan jasotzea ahalbidetzen duena. Sistema honekin jarraitzea erabaki den udaletan, bosgarren edukinontzia hedatzen ari da. Honek materia organikoa aparte jasotzeko aukera ematen du, berezko tratamendua izan dezan eta ez dadin isuri edo erraustu behar izan.

Jarduteko modu honek sortzen digun lehen gogoeta hauxe da: ez zaigula ez gardena, ez demokratikoa iruditzen erabaki horiek publikoak izatea komunikabideetan, aldeztu aurretik Udalean eskuduntza eta zilegitasuna duten organoen analisi, eztabaida eta erabakirik egon gabe.

Atez atekoa jartzeak, ordea, atzerapausoa dakar gure kale eta plazen garbiketan, osasungarritasunean eta baldintza estetikoetan. Era berean, elikadura-kontsumoaren zenbait jarraibide baldintzatu egiten dira,

materia organikoa asteko egun jakinetan soilik atera ahal izango delako. Eta birziklatu ezin den zatia, astean behin baino ezin izango da atera.

Gainera, atez atekoa jartzeak Udal honi ekarriko dizkion kostuen hazkunde nabarmenaz ohartarazi nahi dugu. Langile gehiago beharko dira eta zaborraren tasak nabarmen handituko dira ezinbestean.

Bestalde, gaur egun nabarmena da, Bilduk gobernua duen Gipuzkoako erakundeetan, erabaki duela aurreko legegintzaldian zabor alorrean onartutako osoko planifikazioa gelditzea. Akordioaren eta arrazionaltasun ekonomiko, eraginkortasun eta proportzionaltasun ahaleginaren ondorio izan diren neurriak.

Horrek herri eta hirietan bereizita biltzen hasiko den materia organiko kantitate izugarri erantzuten hastea ahalbidetuko duten tratamendu lantegi batzuen garapena bertan behera geratzea dakar. Horren partez, Bilduk materia organiko hori ondoko beste lurraldeetara kantitate handitan esportatzea besterik ez du eskaintzen, Nafarroara edo Lapurdira (Iparraldea).

Kudeaketa arazo larri bati aurre egiteko modu hori guztia, inprobisazio bidez, eta Gipuzkoan egiten diren birziklapen maila altuen tabula rasa eginez, oso kezagarria iruditzen zaigu krisi garai hauetan, baliabide ekonomikoak xahutzeko garaian, une kritikoan gauden garai honetan.

Materia organikoa bereizita jaso dadin nahi dugu, kalitatezko konposta bihurtu ahal izan dadin, nekazaritzan, hiri parkeetan eta zelaietan bilakatu ahal izan dadin. Baina Gipuzkoako zabortegeiak ere itxi nahi ditugu, horrenbeste arazo eta traba sortu dutelako, eta hori guztia kudeaketaren eraginkortasun irizpideetatik lantzea.

Baina ez gaude prest atzera egitea ekarriko duten sistemak ezartzeko, baliabideak alferrik galtzen dituztenak, inondik inora ez baita eraginkorragoa denik frogatu, indarrean dagoen ingurumen planifikazioari ezikusiarrena egiten baitio eta "zaborraren turismoaren" bidez, hondakin kantitate handiak beste udalerrri batzuetara eramatea baitakar, bilketa sistema honek dakarren bazterkeria sozialaren ondorioz.

Atez atekoa lehenaldira itzultzea da. Hondakinen bilketan, etorkizuna langileen lan-baldintzak hobetzearen aldeko apustua egitea da, eta modernizazioaren, automatizazioaren eta eraginkortasunaren alde egitea, zabor poltsak berriz eskuz jasotzen hastearekin burugogortu ordez.

Aipatutako guztiagatik, PSE-EEko eta EAJ/PNVko udal-taldeek honako mozio hau aurkeztu dute:

MOZIOA:

Lehena.- Udalbatzak erabateko desadostasuna agertzen du atez ateko hondakin bilketa sistema ezartzaren aurrean, eredu zikin, antiestetikoa, garestia, deserosoa eta ez-eraginkorra delako.

Bigarrena.- Udalbatzak gaur egungo birziklapen atalaseak handitzeko beharra azpimarratzen du, ahal den neurrian, zabortegetara edo balorizazio energetikoko lantegietara eraman beharko den zabor bolumena gutxitzea lortzeko.

Hirugarrena.- Udalbatzak alkateari eskatu dio beharrezko tratamendu lantegiak eraikitzen lagun dezala, materia organiko biodegradagarria Gipuzkoako lurraldean konpostatu ahal izan dadin, zati horren bilketa abian jarri baino lehen. Era berean, gure udalerrian sortutako konpostari lehentasunezko erabilera ematea adostu da, parkeetan, zelaietan eta herri honetako beste espazio berde batzuetan. Hori guztia, bidaia garestiak saihesteko, atmosferara igorpen kutsagarriak eta lurraldetik kanpor materia organikoa garraiatzeko alferrikako bidaietan erregai kontsumoak saihesteko helburuarekin.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Informazioa ez dela behar bezala erabiltzen ari uste du. Dubreuil jaunak erabilitako adjetiboei dagokionez, garestia, zikina eta deserosoa dela, alegia, horrela ez dela frogatzeko beharrezko datu guztiak eman litzake, baita Europa mailako datuak ere, baina ez du une honetan egingo.

Ordiziako Udalak dagokionean egokitzat jotzen duen neurria hartuko du. Hondakinak askoz ere hobeto kudeatu daitezkeela uste du eta ingurumena ez kutsatzeko apustua egingo dute.

EAJ/PNV eta PSE-EE (PSOE)-k proposatutako testu bateratuak dio atez ateko bilketaren erabakia hartu dela, egin den guztia kontuan hartu gabe.

Alkateak esan du orain arte planifikazio eskasa egon dela eta are planifikatutakoa ere ez dela gauzatu: Irungo eta Bergara konposta lantegiak ez dira gauzatu.

Bere taldeak uste du hondakinak kudeatzeko eredu hobea planteatu behar dela eta uste du herritarrei azalpenak eta informazioa emanez, %25ean hobetu daitekeela.

Lasai egingo dute, aldeko eta kontrako alderdiez gogoeta eginez.

Dubreuil jn.

Alkateak sinatutako eta Partzuergoari 2011ko abenduaren 21ean edo 22an bidalitako idatziari aipamena egiten dio. Bi egun lehenago, Osoko Bilkuran gaiari buruz galdetu zitzaionean, bilketa sistema abiarazteko asmorik zuenik ukatu bazuen ere.

Zikinagoa, kostu handiagokoa, deserosoagoa eta garestiagoa adjektiboei dagokionez, berak ere datuak baditu. Sistema ezarria duten zenbait udalerrri aipatzen ditu.

Kostu ekonomikoa errauskailua gelditzeak ekarriko du. Hondakinak kanpora eramateak kostu ekonomikoa du.

Sasietak esan du dagoeneko, %20 edo 25 gehiago izango dela.

Usurbilek ere onartu du atez-atekoa garestiago adela hondakin selektiboen bilketa sistema gisa, eta gainera bestelako kostuak gehitzen badizkiozu...

Alkate jn.

Emandako datuak egiazkoak ez direla esan du, baina une honetan ez dela gaia sakontzen hasiko.

Santamaria jna.

Iruditzen zaio herritarrei mezu bidali beharko zitzaiela birziklatzearen garrantziari buruz, baina herritarren atez atekoa inposizio moduan ikusten dute. Lan egin behar dela uste du eta bosgarren edukinontziaren inguruan kontzientziatu edota beste alternatiba batzuetan pentsatu.

Asenjo jn.

Mozioaren edukiarekin batere ados ez dagoela adierazi du, baina eztabaidan erabili den hizketa modua gustuko izan du. Eraikitzailea iruditzen zaio.

Erabateko konfiantza du Ordiziako herritarrengan eta iruditzen zaio, atez atekoa, gaur egun, sistemarik eraginkorra dela.

Katalunian PSOEek gobernu duen udalerri askotan atez ateko sistema jarri dute inolako arazorik gabe. Uste du ez dagoela kutsatzeko eskubiderik.

Talde sozialistak idatzitako txosten bat irakurri du, eta bertan materia organikoaren bilketa selektiboari egiten zaio aipamena, hondakinen tratamendu selektiboari, ez errauskailuei...

PSOEren testu bat irakurri duela esan du.

Dubreuil jn.

Atez atekoa dagoen tokian errauskailua ere badela adierazi du. Birziklatzen dena errauskailura doa. Gaur egun ez dago frogatuta, halaxe adierazi du Osakidetza, instalazio hauek sortzen dutena inguruko bizilagunen osasunerako kaltegarria denik.

Asenjo jn.

PNV keta PSOEek gai honen inguruan hartutako erabakiak atzerapausoa direla uste du.

Santamaria jna.

Azken batean, garrantzitsuena birziklatzea dela uste du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (PNV 1PSE-EE (PSOE) 5,)

Kontrako botoak: 7 (BILDU)

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena ez-onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 7. puntuaren berri eman du:

7.- PSE-EE (PSOE)-k aurkeztutako mozioa Emakumearen nazioarteko egunaren inguruan.

Proposamena

Gaur egun, oraindik ere, beharrezkoa da herritarrengandik gertuen dauden Administrazioek, Udalek, herritarrekin konpromiso eta ardura hitzarmena lortzea, gaur egun oraindik gure gizartean dauden gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak behin betiko erauzteko.

Eredu soziala parekideagoa, eraginkorragoa eta produktiboagoa, batasun sozial handiagokoa eta Ongizatea arriskuan jarriko ez duena sortzeko eta mantentzeko gogoeta sakona egin beharra dago, eta erabakiak ondo pentsatuak eta ausartak izan behar dira udal kudeaketaren azken helburu. Eta horrek ez dio soilik guztien onari eragingo hurbileko eremuan, baizik eta baita herrialde osoko eremu orokorrari. Gaur egungo gure gizarteko emakumeen errealitatearekin bat datorren paradigma berria landu behar dugu, gizonen eta emakumeen arteko desorekak murrizteko eta deusezteko.

“Etxeko gauzen” ardurak, oraindik ere, emakumeena izaten jarraitzen du batez ere, eta gizonen kontzientzia hartzea eta familia alorreko ardurak partekatzea lortzen ez badugu, emakumeek desabantailan egoten jarraituko dute argi eta garbi. Izan ere, berdintasun “benetako eta eraginkorra”, beste gauza batzuen artean, emakumeak kalitatezko enplegua lortzetik dator, gizonezkoen baldintza berdinetan, eta horrek familia arloko zereginetan banaketa parekidea izatea eskatzen du, bai etxeko zereginena, baina zaintzena. Gizonen eta emakumeen artean benetako ardura berdintasuna lortuta orekatuko dira benetan emakumeentzako aukerak.

Hori dela eta, arlo pribatuan gizonen eta emakumeen arteko ardura berdintasunak, emakumeak lan munduan eta kalitatezko lanpostuetara barneratzeak eta arlo publikoan emakumeek boterea hartzeak lagunduko digute gizarte patriarkalean oinarritutako gizarte-egiturak positiboki eraldatzen.

Eta zeregin horrek udalerrien kudeaketatik hasi behar du, horietatik abiatzen baitira lehenik Berdintasun politikak, gure gizartean emakumeek duten giza, gizarte eta ekonomia mailako potentzial izugarriak egoera ekonomikoa ez ezik, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna modu erabakigarrian hobetzen lagun dezan.

Udal honetan duela urte asko egiten da berdintasunaren alde lan. Aurreko legegintzaldian ere, urratsa garrantzitsuak eta erabakigarriak eman ziren norabide horretan, batez ere Ordizian Gizonen eta Emakumeen berdintasunarena I Plana landu eta abiarazi zelako. Legegintzaldi honetan berdintasuna sendotu, indartu eta gure konpromisoan harantzago joan nahi dugu.

Bestalde, krisi globala eta horren kudeaketa gure herrialdean desberdintasunak areagotzen ari da, berdintasun politiken etorkizunaren eta horren irismenaren inguruko kezka gizon-emakumeen bizitzan handitzen doan heinean. Nabarmena da banakako eskubideetan egon den aurrerapena eta azken hamarkadetan Ongizatezko Gizarteak izandako garapena. Zailtasunak egon arren ezin onar dezakegu gizartearentzat orokorrean positiboa den aurrerapen prozesu horrek atzerapenak jasatea edo gelditzea. Iruditzen zaigu krisi ekonomiko – finantziario egoera honetan ere beharrezkoa dela lortutakoak defendatzea eta mantentzea, eta hainbat jarduera bultzatzen jarraitzea: erabakitzeo eskubidea eraginkorra egingo duten jarduerak, genero indarkeriaren aurkako babes eraginkorra, berdintasuna enpleguan, soldata berdintasuna, eta kontziliazio eskubidea, azken batean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra.

Ongizatezko Gizartearen zerbitzuak, hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, pentsioak defendatu behar ditugu, emakumeen bizitza hobetzeko funtsezkoak izan baitira.

Horregatik guztiagatik, Sozialisten Udal Taldeak Batzorde honi proposatzen dio, eztabaida dezan, eta hala badagokio, akordioa eta aldeko irizpena har ditzan Osoko Bilkurara eramateko ondorengo

MOZIOA

Udal eremutik herritarrekin konpromisozko eta ardurazko hitzarmena beharrezkoa dela ulertzen dugulako, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak behin betiko erauzteko, oraindik ere badirelako gure gizartean, eta konpromiso hauek hartzea:

- 1.- Ikerketa programa iraunkorra ezartzea (datu-bilketa, azterketa eta analisisa) Ordiziako emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egoeraren inguruan, beste lurralde batzuetako beste batzuekin alderatu daitekeena (behintzat probintzia mailakoekin)
- 2.- Erakundearen genero ikuspegia tinko barneratzen jarraitzea, eta baita tokiko mailan garatzen diren politiketan ere; gizarte-politika, hezkuntzazkoa, kulturala, kirol-arlokoa, etab.
- 3.- Zerbitzu publikoetan malgutasunaren aldeko apustua egitea, emakumeen eta gizonezkoen bizitza profesional eta pertsonalaren kontziliazioarekin bateragarriak izan daitezen.
- 4.- Udal eskuduntzen baitan lanean eta apustu egiten jarraitzea, kalitatezko zerbitzu publikoen sarearen alde, 0 eta 3 urte bitarteko adingabekoak eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak artatzeko gaietan.
- 5.- Ahal den neurrian, familiak eta haurren arreta zerbitzuko pertsonak eskura egon daitezen bultzatzea eta areagotzea, eskolen opor garaietan eta emakumeak parte hartzen duen beste zerbitzu edo ekintza batzuetan (adibidez: gurasoen eskola, laneratzeko motibazio eta orientazio programak, boterea hartzeko tailerrak edo ikasgelak, helduen etengabeko prestakuntza, etab.)
- 6.- Etxez-etxeko Arreta Zerbitzua indartzea lana sor dadin bultzatuz, familia, lana eta bizitza pertsonala bat etor daitezen bultzatzearekin batera.

7.- Herri Administrazioiko Kontratuen Legearekin bat etorritz, kontratu publikoak esleitzean, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin sozialki arduratsuak diren enpresak positiboki baloratzeko aukera emango duten klausulak sartzea.

8.- Emakumeekin ekimen ekintzaileak bultzatzea laguntza ekonomiko edota fiskalen bitartez (diru-laguntzak, hobariak, etab.)

9.- Gizarte bazterketaren feminizazioaren aurka borrokan jarraitzea, Gizarte Zerbitzuetako erantzunak eta baliabideak etengabe egokitzen joan daitezen, bazterketa egoeran edo arriskuan dauden emakumeen kolektiboen beharretara, eta ekintza positiboen bitartez, emakume kolektibo horien hezkuntza-, gizarte- eta ekonomia-baliabideak bultzatzea, batez ere emakume helduena eta familiaren ardura duten ama bakarrena.

10.- Genero indarkeriaren aurkako lan-ildoak eta borroka jarraitzea eta hobetzea, tratu txarrak jasan dituzten emakumeen eskura udal harrera pisuen zerbitzua jarritz.

11.- Udaleko emakume elkarteak/k laguntzen eta babesten jarraitzea, berdintasunaren alde eta genero indarkeriaren aurka egiten duten lanean.

12.- Helburu horrekin diseinatutako kanpainen bitartez, emakumeak udalerriko elkarte gastronomiko, kultur-, gizarte-, kirol-elkarteetan...eta zuzendaritza batzordeetan sar daitezen bultzatzea.

Era berean, Estatuko Gobernuari eskatzen diogu:

- Emakumeei beren sexu- eta ugalketa-osasunaren inguruan erabakitze eskubidea mantentzea, Sexu- eta Ugalketa-osasun Legearen eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etenaren Legearekin bat etorritz, eta Autonomia Erkidego guztietan indarrean jartzea.
- Lan erreformarako presazko neurrien dekretua aldatzea, modu eraginkorrean honako hauek bermatu daitezen: kontziliazio eskubidea eta enplegu berdintasuna posible egingo duten neurriak, emakumeak ardurazko lanpostu guztietan sartzea, eta soldata-berdintasuna, berdintasun-legeak ezartzen duen moduan.
- Behar duten pertsona guztien zaintza eta arretarekin lotutako ongizatezko Gizarteko zerbitzuak bultzatzea, batez ere, adingabekoekin lotutakoak, pertsona helduekin eta mendekotasun egoeran daudenekin.
- Politika publiko guztietan eta gizartean benetako eta eraginkorra den berdintasuna sustatzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn.

Gaian aurrera egiten ari dela uste du, emaitzak ez dira egiten ari den ahalegin eta lanaren isla.

Ordiziako gaiari helduz, aurkeztutako mozioak 12 puntu aldarrikatzen ditu, eta Espainiako Gobernuari zenbait kontu eskatzen dizkio.

Gutierrez andrea

Berdintasun Saileko Zinegotzi Ordezkariek mozio atzera botatzeko eskatu dio Dubreuil jaunari, datozen hilabeteetan eskutik lan egin ahal izan dezaten.

Alkate jn.

Mozioarekin edukiarekin ia guztiz ados dagoela esan du. Martxoaren 7an aurkeztu zela esan du, baina Osoko Bilkurako Gaien Batzordeko gai-zerrendan ez zela sartu, data horretarako ez baitzeukan zentzun handiegirik.

Gerora, Dubreuil jaunak Osoko Bilkuran eztabaidatu zedin eskatu zuenean, Alkateak ez zuen onartu, baina uste du mozioa adosteko Berdintasun Sailarekin lan egin beharra dagoela.

Dubreuil jn.

Mozioaren amaieran adierazitako lau puntuak Espainiako Gobernuari eskatzeko konpromisoa hartzen bada, mozioaren 12 puntuak (Ordiziari dagozkionak) atzera botatzeko prest dagoela adierazi du.

Bozketa egitea erabaki da eta gaia Berdintasun sailetik lantzen jarraitzea.

Onartu beharreko mozioa, beraz, horrela idatzita geratuko litzateke:

Proposamena

Gaur egun, oraindik ere, beharrezkoa da herritarrengandik gertuen dauden Administrazioek, Udalek, herritarrekin konpromiso eta ardura hitzarmena lortzea, gaur egun oraindik gure gizartean dauden gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak behin betiko erauzteko.

Eredu soziala parekideagoa, eraginkorragoa eta produktiboagoa, batasun sozial handiagokoa eta Ongizatea arriskuan jarriko ez duena sortzeko eta mantentzeko gogoeta sakona egin beharra dago, eta erabakiak ondo pentsatuak eta ausartak izan behar dira udal kudeaketaren azken helburu. Eta horrek ez dio soilik guztien onari eragingo hurbileko eremuan, baizik eta baita herrialde osoko eremu orokorrari. Gaur egungo gure gizarteko emakumeen errealitatearekin bat datorren paradigma berria landu behar dugu, gizonen eta emakumeen arteko desorekak murrizteko eta deusezteko.

“Etxeko gauzen” ardurak, oraindik ere, emakumeena izaten jarraitzen du batez ere, eta gizonen kontzientzia hartzea eta familia alorreko ardurak partekatzea lortzen ez badugu, emakumeek desabantailan egoten jarraituko dute argi eta garbi. Izan ere, berdintasun “benetako eta eraginkorra”, beste gauza batzuen artean, emakumeak kalitatezko enplegua lortzetik dator, gizonetzkoen baldintza

berdinetan, eta horrek familia arloko zereginetan banaketa parekidea izatea eskatzen du, bai etxeko zereginena, baina zaintzena. Gizonen eta emakumeen artean benetako ardura berdintasuna lortuta orekatuko dira benetan emakumeentzako aukerak.

Hori dela eta, arlo pribatuan gizonen eta emakumeen arteko ardura berdintasunak, emakumeak lan munduan eta kalitatezko lanpostuetara barneratzeak eta arlo publikoan emakumeek boterea hartzeak lagunduko digute gizarte patriarkalean oinarritutako gizarte-egiturak positiboki eraldatzen.

Eta zeregin horrek udalerrien kudeaketatik hasi behar du, horietatik abiatzen baitira lehenik Berdintasun politikak, gure gizartean emakumeek duten giza, gizarte eta ekonomia mailako potentzial izugarriak egoera ekonomikoa ez ezik, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna modu erabakigarrian hobetzen lagun dezan.

Udal honetan duela urte asko egiten da berdintasunaren alde lan. Aurreko legegintzaldian ere, urratsa garrantzitsuak eta erabakigarriak eman ziren norabide horretan, batez ere Ordizian Gizonen eta Emakumeen berdintasunarena I Plana landu eta abiarazi zelako. Legegintzaldi honetan berdintasuna sendotu, indartu eta gure konpromisoan harantzago joan nahi dugu.

Bestalde, krisi globala eta horren kudeaketa gure herrialdean desberdintasunak areagotzen ari da, berdintasun politiken etorkizunaren eta horren irismenaren inguruko kezka gizon-emakumeen bizitzan handitzen doan heinean. Nabarmena da banakako eskubideetan egon den aurrerapena eta azken hamarkadetan Ongizatezko Gizarteak izandako garapena. Zailtasunak egon arren ezin onar dezakegu gizartearentzat orokorrean positiboa den aurrerapen prozesu horrek atzerapenak jasatea edo gelditzea. Iruditzen zaigu krisi ekonomiko-finantziario egoera honetan ere beharrezkoa dela lortutakoak defendatzea eta mantentzea, eta hainbat jarduera bultzatzen jarraitzea: erabakitzeko eskubidea eraginkorra egingo duten jarduerak, genero indarkeriaren aurkako babes eraginkorra, berdintasuna enpleguan, soldata berdintasuna, eta kontziliazio eskubidea, azken batean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra.

Ongizatezko Gizartearen zerbitzuak, hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, pentsioak defendatu behar ditugu, emakumeen bizitza hobetzeko funtsezkoak izan baitira.

Horregatik guztiagatik, Sozialisten Udal Taldeak Batzorde honi proposatzen dio, eztabaida dezan, eta hala badagokio, akordioa eta aldeko irizpena har ditzan Osoko Bilkurara eramateko ondorengo

Estatuko Gobernuari eskatzen diogu:

- Emakumeei beren sexu- eta ugalketa-osasunaren inguruan erabakitzeko eskubidea mantentzea, Sexu- eta Ugalketa-osasun Legearen eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etenaren Legearekin bat etorri, eta Autonomia Erkidego guztietan indarrean jartzea.
- Lan erreformarako presazko neurrien dekretua aldatzea, modu eraginkorrean honako hauek bermatu daitezten: kontziliazio eskubidea eta enplegu berdintasuna posible egingo duten neurriak, emakumeak ardurazko lanpostu guztietan sartzeko, eta soldata-berdintasuna, berdintasun-legeak ezartzen duen moduan.

- Behar duten pertsona guztien zaintza eta arretarekin lotutako ongizatezko Gizarteko zerbitzuak bultzatzea, batez ere, adingabekoekin lotutakoak, pertsona helduekin eta mendekotasun egoeran daudenekin.
- Politika publiko guztietan eta gizartean benetako eta eraginkorra den berdintasuna sustatzea.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- 2012 ekitaldirako aurrekontua.

Proposamena

Osoko bilkurarako Gaietarako Batzordeak alkate jaunak idatzitako aurrekontu-proiektua aztertu zuen 2011ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, eta osoko bilkurara eramatea adostu zuen, bertan eztabaidatu eta onartzeko.

AKORDIO PROIEKTUA

Alkate jaunak proposatutako eta idatzitako 2012rako aurrekontu-proiektua onartzea. Proiektuak honako kapituluak ditu laburbilduta:

SARRERAK

| KAPITULUA | IZENA | EUROAK. |
|-----------|---------------------------------|-----------|
| 1 | Zuzeneko zergak | 2.222.450 |
| 2 | Zeharkako zergak | 350.000 |
| 3 | Tasak eta bestelako sarrerak | 2.748.218 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 7.699.388 |
| 5 | Ondare-sarrerak | 279.850 |
| 6 | Inbertsio errealak besterentzea | 9.078.155 |
| 7 | Kapital-transferentziak | 111.800 |
| 8 | Finantza-aktiboen aldakuntzak | 45.000 |

| | | |
|----------------|-------------------------------|-------------------|
| 9 | Finantza-pasiboen aldakuntzak | 6.119.753 |
| GUZTIRA | | 28.654.614 |

GASTUAK

| KAPITULUA | IZENA | EUROAK. |
|----------------|---|-------------------|
| 1 | Langileen ordainsariak | 4.810.612 |
| 2 | Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea | 6.279.758 |
| 3 | Interesak | 180.008 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 1.575.064 |
| 6 | Inbertsio errealak | 6.498.495 |
| 7 | Kapital-transferentziak | 30.985 |
| 8 | Finantza-aktiboen aldakuntzak | 45.000 |
| 9 | Finantza-pasiboen aldakuntzak | 9.234.692 |
| GUZTIRA | | 28.654.614 |

Honako aurrekontu hauek bat egitearen ondorio direnak:

UDALAREN BERAREN AURREKONTUA

| SARRERAK | | GASTUAK | |
|----------------|-------------------|----------------|-------------------|
| Kap. 1.- | 2.222.450 | Kap. 1.- | 3.810.245 |
| Kap. 2.- | 350.000 | Kap. 2.- | 3.068.726 |
| Kap. 3.- | 977.300 | Kap. 3.- | 62.958 |
| Kap. 4.- | 6.156.378 | Kap. 4.- | 2.447.285 |
| Kap. 5.- | 83.850 | | |
| Kap. 6.- | 300.000 | Kap. 6.- | 1.166.450 |
| Kap. 7.- | 111.800 | Kap. 7.- | 163.235 |
| Kap. 8.- | 45.000 | Kap. 8.- | 45.000 |
| Kap. 9.- | 912.681 | Kap. 9.- | 395.560 |
| GUZTIRA | 11.159.459 | GUZTIRA | 11.159.459 |

"SAN JOSE EGOITZA" ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA

| SARRERAK | | GASTUAK | |
|----------------|------------------|----------------|------------------|
| Kap. 1.- | | Kap. 1.- | 761.172 |
| Kap. 2.- | | Kap. 2.- | 1.780.462 |
| Kap. 3.- | 776.680 | Kap. 3.- | |
| Kap. 4.- | 1.764.454 | Kap. 4.- | |
| Kap. 5.- | 500 | | |
| Kap. 6.- | | Kap. 6.- | |
| Kap. 7.- | | Kap. 7.- | |
| Kap. 8.- | | Kap. 8.- | |
| Kap. 9.- | | Kap. 9.- | |
| GUZTIRA | 2.541.634 | GUZTIRA | 2.541.634 |

"HERRI ANTZOKIA" ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA

| SARRERAK | | GASTUAK | |
|----------------|----------------|----------------|----------------|
| Kap. 1.- | | Kap. 1.- | 93.695 |
| Kap. 2.- | | Kap. 2.- | 79.710 |
| Kap. 3.- | 45.850 | Kap. 3.- | 50 |
| Kap. 4.- | 121.605 | Kap. 4.- | |
| Kap. 5.- | 6.000 | | |
| Kap. 6.- | | Kap. 6.- | 8.750 |
| Kap. 7.- | 8.750 | Kap. 7.- | |
| Kap. 8.- | | Kap. 8.- | |
| Kap. 9.- | | Kap. 9.- | |
| GUZTIRA | 182.205 | GUZTIRA | 182.205 |

MAJORI KIROLDEGIA SL-REN AURREIKUSPEN BALANTZEA

| SARRERAK | | GASTUAK | |
|----------------|------------------|----------------|------------------|
| Kap. 1.- | | Kap. 1.- | 145.500 |
| Kap. 2.- | | Kap. 2.- | 1.350.860 |
| Kap. 3.- | 804.388 | Kap. 3.- | 6.000 |
| Kap. 4.- | 599.178 | Kap. 4.- | 70.006 |
| Kap. 5.- | 189.500 | | |
| Kap. 6.- | | Kap. 6.- | 124.900 |
| Kap. 7.- | 123.500 | Kap. 7.- | |
| Kap. 8.- | | Kap. 8.- | |
| Kap. 9.- | | Kap. 9.- | 19.300 |
| GUZTIRA | 1.716.566 | GUZTIRA | 1.716.566 |

ORDIZIA LANTZEN S.A.-REN AURREIKUSPEN BALANTZEA

| SARRERAK | | GASTUAK | |
|----------------|-------------------|----------------|-------------------|
| Kap. 1.- | | Kap. 1.- | |
| Kap. 2.- | | Kap. 2.- | |
| Kap. 3.- | 144.000 | Kap. 3.- | 111.000 |
| Kap. 4.- | | Kap. 4.- | |
| Kap. 5.- | | | |
| Kap. 6.- | 8.778.155 | Kap. 6.- | 5.198.395 |
| Kap. 7.- | | Kap. 7.- | |
| Kap. 8.- | | Kap. 8.- | |
| Kap. 9.- | 5.207.072 | Kap. 9.- | 8.819.832 |
| GUZTIRA | 14.129.227 | GUZTIRA | 14.129.227 |

Ondoren idatzi den Aurrekontua Betearazteko Udal Araua onartzea:

2012KO AURREKONTUA GAUZATZEKO OINARRIAK

1.- 2012.-ko ekitaldi ekonomikoan, Ordiziako Udalak bere Aurrekontuaren hasierako kredituen guztizko zenbatekoaren % 1eko abalak eman ditzake gehienez ere. Erakunde autonomoek ezin izango dute hirugarrenen aurrean abalak eman, ezta inolako bermerik hitzartu ere.

2.- Gastuen Aurrekontuko honako partida hauek handitu daitezke bakoitzarentzat ezartzen den finantziazioaren arabera.

| <u>Gastuak</u> | | <u>Sarrerak</u> | |
|----------------|--|-----------------------------------|-------------------------------------|
| Partida | Kontzeptua | Partida | Kontzeptua |
| 227.611.00.07 | Foru Aldundiak herri-zergak kudeatzeagatiko kontua | 112.01, 112.02, 130.01 eta 130.02 | Hainbat kontu |
| 227.611.00.09 | Nahitaezko diru-bilketarako kontratua | 392.01 eta 393.01 | Hainbat kontu |
| 226.222.12.99 | Ibilgailuak kentzea | 310.05 | Ibilgailuak kentzeagatiko sarrerak. |
| 212.222.12.01 | Bideko seinaleak mantentzea (pilonak) | 399.01 | Aberiak sortzen dituztenen sarrerak |

Alkatetzaren dekretu bidez onartuko da kreditua handitzeko espedientea.

3.- Funtzio-multzo beraren barruan egin beharreko kreditu-transferentziak Arlo bakoitzeko ardura duen Delegatuak eskatu beharko ditu, eta alkate jaunaren dekretu bidez onartu beharko dira. Alkatea.

Partidak gainditzen badira, eta dagokion ordezkariak egin beharreko transferentziak egitea proposatzen ez badu, Ogasun Ordezkaritzak egokien irizten dituen partidak hartuko ditu, dagokion aldaketa egiteko.

Funtzio-multzo ezberdinen arteko kreditu-transferentziak Osoko Bilkurari dagozkio.

Inbertsioetarako kredituak murriztea ekarriko duten kreditu transferentzien espedienteetarako, Osoko Bilkuraren erabakia beharko da.

Gai horretan, Alkate jaunarentzat zehaztutako eskumen berberak izango dituzte Erakunde Autonomoetako buruek. Alkatea.

4.- Kontu-hartzaileak prestatuko du kredituak erabiltzeko espedientearen zirriborroa, horretarako honako faseetan geratu diren gastuei erreparatuko die: abenduaren 31n Baimenduan (B) edo Xedatutakoan (X) zeudenak. Alkate jaunari dagokio espedientea onartzea.

5.- Alkateak kreditu gehigarrien espedienteak onar ditzake, baina beti ere, metatuz gero, diru-sarrera arrunten aurrekontuaren %5a baino gehiagokoa ez bada.

6.- 'Maileguak langileei' 833.121.00.01 kontusaileko kredituak eskuratzeko, interesdunek eskaera egin beharko dute, eta proposatutako eta aurrekontuan jasotako gastua justifikatu beharko dute. Ogasun Ordezkaritzak ebatziko du mailegua ematea bidezkoa den ala ez; oniritzia jasoz gero, alkate jaunaren dekretuz betearaziko da.

7.- Zinegotziek Saileko Ordezkeri izateagatik edo bileretara joateagatik jasotzen dituzten ordainsariak txikitu egin dira, Aurrekontuak koardatu dezan eta krisi ekonomikoak eragiten dien pertsonen elkartasuna adierazteko.

8.- Aurrekontuan aurreikusitakoak baino diru-laguntza finalista handiagoak emateko, kopuru berdineko gastu-kredituak gaitu beharko dira dagozkien gastu-partidetan. Alkate jaunak baimenduko du gaitze hori.

9.- Honako hauen inguruko gastuak egiteko:

- Langileak kontratatzea.
- Lanak kanpokoekin kontratatzea.
- Mantentze-lan hutsak ez diren obrak edo lanak udal-zerbitzuek beraiek egitea.
- Material inbentariagarria erostea.

Alkatetzak dekretu bidez onartu beharko du, eta aurrez kontu-hartzailearen txostena eskatu beharko da.

Alkatetzaren aldeko dekretua jasotzen ez den bitartean, erabat geldituko da gastu-espedientearen tramitazioa.

10.- 2 hilabetez behin kontu-hartzaileak aurrekontu-partiden egoeraren berri emango die ordezkariari; horiek behar diren neurriak hartu beharko dituzte onartutako kreditua ez gainditzeko.

Erabilgarri dagoen kreditua behar adinako ez dela irizten bada, bai aparteko gastuak izan direlako, bai Aurrekontua egiterakoan ezagutzen ez ziren beste premia batzuk daudelako, dagokion Ordezkaritzak kreditu-gehiagari ematea proposatuko du; horretarako, dagokion finantziarioa proposatu beharko du, edo kreditu-geldikina eskatu beharko du, halakorik balego.

11.- Dietak.- Alkate eta Zinegotziek, eta Udal langileek joan-etorriengatik sortzen zaizkien gastuak kobratzeko eskubidea izango dute, beti ere Udal kompetentziako gaiak gestionatzeko egiten direnean; horretarako, Udalbatzak baimena emana behar du izan. Gastu horien kopurua honako hau izango da:

- Autonomia Erkidego barruko joan-etorria norberaren ibilgailuan, 0,29 euro/km.
- Gosariak: 6.-euro, Bazkaria:16.- euro, Afaria:16.- euro.
- Ostatu hartzea: Hotelaren gehienezko kostua 100 euro/pertsona /eguna.

Ikastaroetara nahiz azoketara joanez gero, bazkari, afari eta ostatu hartzeko ere ezarritako mugak aplikatuko dira. Erakunde arteko harremanengatik aipatu horiek baino gastu handiagok egin behar direnean soilik estaliko ditu horiek Udalak, aurrez gastuei dagozkien fakturak ekarrita.

12.- Udalbatzako buru, funtzionario eta kideek ordainketa oker guztiak itzultzeko erantzukizuna izango dute, beren eginkizunen arabera, kredituak likidatzerakoan, agiriak egiterakoan edo konpromisoak hartzerakoan okerrik egin badute.

Edozein motako agintari eta funtzionarioek, iruzurreratik, erruagatik edo arduragabekeria larriagatik lege-xedapenak hautsiz erabakiak hartu edo egintzak egiten badituzte, horien ondoriozko kalte eta galerak ordaintzera behartuta daude Korporazioari.

Dena dela, gastuak eta ordainketak egintzen dituenak eta kontu-hartzaileak, aipatu gastu eta ordainketa horiek desegokiak direla idatziz ohartarazten ez badu, baimentzen dituzten behar adinako krediturik gabeko gastu guztien erantzule izango dira, baita aitortzen, kitatzen edo ordaintzen duten obligazio guztien erantzule ere.

13.- Salmentak.- Alkatetzaren aginduz egingo da ezertarako ez diren gauzen salmenta, 360,- euro baino gutxiago balio dutenean, hala era, esan behar da Udalaren beste erabakirik behar ez duten salmentetarako oinarria dela hori.

14.- Alkateak ez du bere eskumenik inoren esku utzi, eta ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoak ditu bere esku.

15.- Kredituen lotespen juridikoaren mailak honako hauek izango dira:

Funtzio-programa eta azalpena:

Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak
Inbertsio errealak
Finantza-aktiboen aldakuntzak.

Funtzio-programa eta kapitulua:

2 kapitulua (elektrizitate, ur, gas eta erregai hornigaien partidak izan ezik, Aurrekontu osorako azpikontzeptu ekonomikoaren mailari lotuko baitzaizkio).

Kapitulua

Langile-gastuak.

Gastu finantziarioei buruzko 3 kapituluak eta Pasibo finantziarioen Bariazioari buruzko 9. kapitulua, elkarri lotuta geratzen dira.

2. kapituluko partida askoren gastuak urte guztian zehar sortzen direla kontuan hartuta, eta, kredituen lotespen juridikoaren mailak zorrotz aplikatzearen ondorioz, aipatu partidetak kredituak agortu ez daitezen, kontu-hartzailetzaren aurrekontu-partidarekiko kontrola 2011ko azarora arte egingo da.

Gainera, ondorengo partida hauei, banan-banan, urte osoan egingo zaie jarraipena, nahiz eta azkenean artikuluko honen hasieran ezarritako kredituen lotespen juridikoko mailak aplikatu.

| PARTIDA | IZENA |
|---------------|--|
| 226.111.00.02 | Protokolo-arretak, gobernu-organoak. |
| 231.111.00.01 | Dietak, joan-etorriak, gobernu-organoak. |
| 213.222.11.01 | Ibilgailuen mantentze-lana, udaltzaingoa. |
| 210.222.12.01 | Bide-seinaleen mantentze-lana, trafikoa. |
| 211.422.12.01 | Eraikinen mantentze-lana, Urdaneta ikastetxea. |
| 212.422.12.01 | Makina, lanabes eta tresnak mant. Urdaneta Esk. |
| 227.432.10.07 | Hirigintzako azterlan teknikoak. |
| 212.433.00.01 | Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, argiteria. |
| 212.434.11.01 | Instalazio, parke eta lorategien mantentze-lana. |
| 210.441.20.01 | Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, saneamendua. |
| 226.451.10.99 | Kultur ekintzak. |
| 226.454.11.99 | Herriko jaiak. |
| 226.454.12.98 | Euskal Jaiak. Beste ospakizun batzuk. |
| 226.454.12.99 | Euskal Jaiak. Asteazkena. |
| 226.454.13.98 | Eguberrietako apaingarriak. |
| 226.454.13.99 | Eguberriak. |
| 210.511.00.01 | Bide publikoen mantentze-lana. |
| 226.622.31.91 | "Artzain Eguna" azoka. |
| 226.622.31.92 | Erdi Aroko azoka. |
| 226.622.31.97 | Ardoaren azoka. |
| 226.622.31.99 | Eguberrietako ezohiko azoka. |

16.- Ordainketak. Ordainketak, oro har, banku-transferentzia bitartez egingo dira.

Ordainketak, fakturaren data egunetik edo Udalaren kontu-hartzailletza departamentuan sartzen denetik (bi daten artean alde handia baldin badago), edo obra-ziurtagiria ematen den datatik 40 egun baino lehen egingo dira; betiere, ordaintzeko nahitaezko oniritzia edo akordioa badu.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Intsauti andrea

Aurrekontuaren proposamena zergatik atzeratu den azaltzen du. Arrazoi bat baino gehiago izan dira: Rajoy-ren dekretua eta berak onartutako neurriek lanpostu huts berriak sortzeko aukeran izan duen eragina, Foru funtsa, Majori Kiroldegia S.M.-ri eman behar izan zaion dirua, Kiroldegia kudeatzen duen enpresaren arazoetatik, Lanpostuen Balorazioak eskatzen zuen kantitatearen kalkulua, azkenean, hasieran pentsatzen zena baino handiagoa izan da.

Gastuei dagokionez, aurrekontuan izan den beherakada azaldu du. Protokolo-, azoka-, publizitate-gastuak... jaitsi dira eta gizarte zerbitzuak mantendu dira.

Inbertsioei dagokionez, bi azpimarratu behar dira:

- 1.- Nadal-en lokalak erostea.
- 2.- Udal biltegiarako lokalak erostea.

Helburua gastua murriztea eta kontrolatzea da, ez baitute aurreikusten datorren urtean hobe izango denik.

Santamaria jna.

Ezaugarri bat jartze arren aurrekontu guztiz murriztaileak esatea ez litzateke egia izango apreziazio batzu kontutan hartu gabe. Aurrekontu hauek Langileen Lanpostuen Balorazioa aplikatzeagik ondorio latzak dituzte.

Hau da murrizketaren arrazoa, langileen soldatak % 8 eta piko igotzeak dakarren ondorioa.

EAJk kontrako botoa emango du, salba ezina den oztopo bat dagoelako: langileen balorazioaren aplikazioa.

Ordiziarren interesak alde batera uztea dakar horrek, baina ez da hau arrazoi bakarra.

Nabari utzi nahi dugu urtez urte zorraren jeitsieraren apustua egin genuela, aurten berriz 5.000 euroko aurrezpen batekin 900.000 euroko zorpetzea dakar.

Zorpetze maila da Ordiziako udalak duen indikadore ona, eta aurtengo zorpetzeak hainbat arazo ekar ditzake; aurtengo aurrekontuaren partidak behera joan badira eta 5.000 euroko aurrezpena ematen badute, datorren urteko aurrekontua oraindik beste beherapen bat jasan beharko dute, gastuak igoko direlako zorraren ondorioz eta udaletxeko maniobrabilitatea arriskuan jarritz.

Bere aldetik kontrol zorrotz bat esijitzen du, 5.000 euro horiek muga izanik, hau da partidak ezin dute desbiorik jasan ez dago maniobratzeko tarterik.

Argi indarra izoztu egon da kopurua, aurten % 5/7 bat igoko da, 140.000 eurotan 7.000 euro baino gehiago.

Aurka gaude ez dugulako ikusten aurrekontu honen bidez Ordiziarako proiektu argi bat, anbizio falta somatzen dugu, aurkerak galduz, adibidez Feriaren 5. Mendeurrena okasio parebaga bat da Ordizia (lehen sektore, baserriarrek, merkatariekin edo urbanistikoki, turismo, berdintasuna, feriak) dirulaguntzak jaso ahal izateko.

Aurka aurrekontua krisiaren aurkako tresna bat izan beharko luke eta ez dira errealtatera makurtzen. Enplegurako partida, hau da enplegu sustapeneko partida %44 gutxitu da, eta dirulaguntza eskatzera

aurreratu nintzela gogoraarazi nahi nuke, eta baita aurreko programaren badiltzak berdinuko zirela ere, berriz 30 lanpostutik, 16ra jeitsi da, Tolosan berriz 60 tik 60. Hemen ez dakigu zer gertatu den.

Aurrekontu hauek ere desberditasunak ekartzen dute, despidoak egongo dira eta eman dira, Delikatuz, eta Kirol teknikariaren jornada erdira murriztuz.

Inkoherenteak ere direla esango genuke, urtez urtez azpikontratazioaren aurka aurkeztu zarete eta berriz Etxez etxeko laguntza, Eguneko zentroa, San Jose egoitza, berdin jarraitzen dutela ikusten dugu, bueno okerregoko eguneko zentroan behintzat, ez bakarrik azpikontratazioarengatik baizik eta plaza pribatuak sustatu dituzuelako, eta dirua duen batek errazago duelako orain eguneko zentro honetan sartzea.

Eta azkenik politikoak; Nazioen Mundua, Jentilbaratze, Memoria historikoa, presoen familiarrak, eta Udalbiltza egiten dute aurtengo aurrekontua aurrekontu politikoa, eta honek banaketa besterik ez dakar.

Kontu-hartzaile jaunari galdetu dio aurrekontuetan mailegu berriak kontuan izan dituen.

Kontu-hartzaile jaunak

Erantzun dio ezetz, orokorrean, maileguez urtebeteko gabezia izaten dutelako, eta beraz, ez dute eraginik ekitaldi honetan.

Santamaria jna.

Ez da asmo handiko aurrekonturik ikusten, ez da argia.

Asteko azokaren 500. urteurrena dela eta, erakunde mailan nabarmentzeko aukera ona dela uste du. Kaltetutako sektoreekin lan egitea garrantzitsua dela uste du, gaiari bultzada emateko.

Aurrekontu zaila dela uste du, baina diru-laguntza bidez diru-sarrerak gehiago landu zitezkeela uste du.

4000 Planarekin 16 pertsona besterik ez dira kontratatu, beste udalerrri batzuetan dezente gehiago izan badira ere (Tolosa jarri du adibide).

Kirol Teknikariaren lan-jarduna %50era murriztearen aurka agertu da.

San Jose egoitzaren zerbitzuak... azpikontratatzea kritikatu izan du beti, oraindik ere azpikontratazio bidez eskaintzen da zerbitzua. Guztiz koherentzia gabea.

D'Elikatuz Zentroan aurrekontua murriztu da. Ez dakigu zer gertatuko den.

Inbertsioei dagokionez, udal biltegiarako lokalak erostea aukera bat balitz bezala aurkeztu da, baina Nadal-en lokalak erostearekin batera, datozen urteetarako karga handia izango dela uste du.

Oiangualdeko espaloari dagokionez (Udalaren Hirigintza Hitzarmenarekin eta Sasetako Mankomunitatearekin sortutako aukera), egoera ekonomikoa gastu mota horri aurre egiteko onena ez dela iruditzen zaio.

Alkate jn.

Santamaria jaunaren parte-hartzea arduragabea eta demagogikoa izan dela esan du.

Santamaria jaunak Aurrekontua aztertzeko bilerak eskatu ondoren, deitutako bileretara ez azaldu ere egin, eta parte hartu duenetan ordu erdira alde egin du.

Eta orain honekin dator.

Lanpostuen balorazioari dagokionez, langileei joan den urtetik zor zitzaien zerbait dela ulertu du, joan den urtean onartu baitzen balorazioa.

Alkate jaunak esan du jarraian, Santamaria jaunak dioela langileen soldata %8 igo dela, baina ez dioela ezer zenbait kargu publikoen soldata-igoerari buruz, % 20 eta % 25erainokoa izan bada ere.

%8ko igoerak suposatzen du Ordiziako langileak Beasain edo Lazkaoko langileekin berdintzea.

Inbertsioei dagokionez, asmo handikoak ez direla dio, baina bere taldeari ezinbestekoa iruditzen zaio kultur azpiegiturak hobetzea.

Orain arte, urtetan dirutza gastatu da udal biltegietarako lokalen alokairuan, baina gainera, Goiekiko lokalen erosketa ez da bilatu, besterik gabe aukera suertatu da.

Goieki-rekin sinatutako hitzarmena dela eta, elkarteak aurre egin beharreko hirigintzako zor batzuk ditu, eta une hauetan ez du hori egiteko dirurik.

Hori dela eta, inbertitzea erabaki da, etorkizunerako gastuak murriztearekin batera.

Zorra handia da.

Energian egindako %7ko igoera murrizten saiatuko da.

Egoera zaila izan arren, Nadal-ena edo Goiekiko lokalena bezalako inbertsioak planteatzea ez dator bat asmo handiko aurrekontuak ez direla esatearekin.

Asteko azokaren 500. urteurrenari dagokionez, helburu nagusia baserriarrei asteazkenero, goizeko 6etan, eta baserriko produktu freskoekin etortzeagatik eskertzea dela uste du.

4000 Aginduko programan kontratazioaren beherakadari dagokionez, Santamaria jaunari esan dio bera izan zela, hain zuzen, eskaria sinatu zuena, eta diruz lagundutako proiektuen kopuruan izandako murrizketa, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan izandako murrizketari zor zaiola, aldi berean.

Gainera, eta horri lotuta EULENen faktura batzuk ordaintzen ari dira, Euskadi 09 programaren kudeaketan gastuagatik, enpresak Santamaria jaunarekin (aurreko alkatea) adostu zituenak.

D'elikatuz zentroari dagokionez adierazi du jasotzen dituen bisitak aztertu behar direla, eta horri dagokionez jasotako informazioarekin, egin behar dena ondo kudeatzea dela.

Kirol Teknikariaren lan-jardunaren murrizketari dagokionez, gogorarazi du bera kirol arloari zegokionez lanorduen zati bat ari zela, eta gainontzekoa gazteria gaiekin lotuta egiten zuela lan.

Aurreko gobernuak nahiago izan zuen kiroldegiaren kudeaketa enpresa pribatu bati eskaintzea eta teknikariaren lan-jardunak gazteria gaiekin osatzea.

Oiangualdeko espaloiaaren obra (hirigintza hitzarmena) Oianguko parte-hartze prozesuarekin nahastu du. Gauza bat d'aparte-hartzea eta beste hirigintza.

Dubreuil jn.

Berak aurkeztutako zuzenketak kontuan izan ote diren galdetu du.

Alkate jn.

Berak pertsonalki, aurrekontuetan parte-hartzea eskertzen diola erantzun dio, baina aurrekontuei buruzko taldeen arteko azken bilera martxoaren 21ean izan zela gogorarazi dio, eta zuzenketak martxoaren 23an aurkeztu zirela.

Zenbait gauza zentzugabeak iruditzen zaizkio. Karga ideologiko handia dutela uste du, euskara sustatzea dakarren guztia bertan behera uztea proposatzen baitu.

Dubreuil jn.

Aurrekontuek epe motzean eta ertainean planifikazioa behar dutela uste du. Gogoeta estrategikoa, kontuan izanik krisia luzera doala.

Plan ekonomikoak beharrezko irizpide guztiak behar dituela uste du. Kontrolatu egin behar dira, oso doitu baitaude.

Ezin dira desbideratzeak egin.

Ordizian ere krisia eragiten ari da.

Enplegua sustatzeko eta irisgarritasuneko partidei dagokionez, handitu egin behar direla uste du.

Merkataritza eta enpresak sustatu behar dira hobari eta pizgarri ekonomikoekin.

Plan Estrategikoa eta urteko Plan eragileak izatea funtsezkoa dela uste du.

Finantza arazoak ezin dituzte herritarrek beren gain hartu, ondorioz, gastu gutxiago egitea dakarrelako.

Gastu gutxi egiteko unea dela ere uste du, ez da aholkularitza, kontsultora, zinegotzi liberatu, eta horrelakoetarako garaia, eta aldi berean, Administrazioak merkataritza bezalako sektoreak bultzatzen jokatzen duen paperean asmo handikoa izan beharra dago.

Aurrekontu honek ez du planifikazio irizpiderik.

Plan estrategikoa zakarretara bota da.

Zalantzak handia direla uste du, baina zalantzak argitzen joan beharko litzatekeela.

Alde batetik, BILDU dio krisia ez dutela herritarrek ordaindu behar, baina azkenean 90.000 € gehiagorekin tasa eta zergetan, herritarra ito egiten da eta ez da enplegu berria sortzeko sektorerik bultzatzen.

2008 eta 2009ko likidazioetan isunen diru-bilketa 40.000 € baino gehiagokoa zen, eta aurten, dezente gutxiago aurreikusten da.

Kontu-hartzaile jaunak

Argitu du isunetan, gutxi gorabehera, %50 biltzen dela.

Dubreuil jn.

Diru-laguntza nahikoak falta direla uste du.

Zaharren Egoitzako karga aipatu du, egoera irregularrean jarraitzen duen Eguneko Zentroa, erabiltzaileen diru-sarrerak aurkezten ez direlako.

Bi udal lanpostu publiko dira, eta bertako diru-sarrerak aurreikusita egon behar dira.

Hitza edo Udalbiltza finantzatzeko unea ez dela uste du.

Gastuari dagokionez, gizarte gaietako gastua mantentzen dela entzuteak harritu egin du, hori ez baita egia, eta drogamenpekotasunaren prebentziorako partida, kale-hezitzaileenak...aipatu ditu adibide gisa, horiek murriztu egin baitira.

Maiza and.

Erantzun dio egin behar zirela uste zen tokian egin direla murrizketak. Kale-heziketaren partida murriztu egin da, baina horrek ez du esan nahi zerbitzua okerrago doanik.

Sail bat kudeatzen duen edo horretaz arduratzen den pertsona aldatzen denean, berriak ez du zertan lehen kargua betetzen zuen pertsonaren ikuspegiarekin bat etorri behar.

Dubreuil jn.

Maiz andreak plaza pribatuen gaia konpontzeko denbora nahikoa izan duela uste du eta ez duela egin.

Maiza and.

Erantzun dio konponbideak batzuetan ez direlako berehalakoak. Konponduko dute.

Foru Aldundiak udal plazen inguruko aukeraz mintzatu da, pribatuak ez direnak, eta batez ere Dubreuil jaunarengandik deseroso egiten zaiona, Saileko langileei egiten dien jazarpena dela.

Dubreuil jn.

Gezurra dela erantzun dio, baina edozein kasutan ez diola Saileko teknikariek hitz egiteari eta informazioa eskatzeari utziko esan du.

Aurrekontuen aurka bozkatuko du.

Alkate jn.

Aurkeztutako zuzenketaren bati erantzun dio.

Liberatutako zinegotziaren soldatari dagokionez, asko harritzen dio Dubreuil jaunak pentsatzen duela, gobernu berriaren proposamena parte-hartzea delako.

Komunikabideei dagokionez, publikoak zein pribatuak izan, euskarako komunikabideen aldeko apustua egiten jarraituko du, Euskal Herriak euskarazko komunikabideak behar baititu.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 6 (PSE-EE (PSOE) 1, EAJ/PNV 5)

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- 2012 ekitaldiko Plantilla Organikoa.

Proposamena

1985ko apirilaren 2ko 7/1985 legearen 90. artikularekin, Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituela, eta Euskal Funtzio Publikoko 6/89ko 20. artikularekin bat etorritz, Udalbatzari dagokio, urtero

aurrekontuaren bitartez, udaleko Plantilla onartzea, eta bertan bildu beharko dira funtzionarioei, langile finkoei eta aldi baterako langileei erreserbatutako lanpostuak.

Araudi hori betez, eta dauzkagun aurrekarien, azterketen eta gainontzeko justifikazio dokumentuen arabera, Idazkaritzako eta Kontu-hartzailetzako Zerbitzuek Udal honetako Plantilla Organikoa osatu dute 2012 urterako, eta agindu hauek zerrendatzen dituzten printzipioei erantzuten die.

Era berean, Majori Kiroldegia S.M.-ak eta Erakunde Autonomoek (San Jose Egoitzak eta Herri Antzokiak), goian aipatutako artikuluekin bat etorritik, 2012rako dagozkien Plantilla Organikoak landu dituzte.

Ondorioz, honako hau hartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- Udal honetako Plantilla Organikoa onartzea 2012 ekitaldirako, Udal honetako langile funtzionarioei erreserbatutako plaza guztiak biltzen dituen eta akordio honen ERANSKINEAN jasotzen dena.

Bigarrena.- Majori Kiroldegia S.M. eta San Jose Egoitza eta Herri Antzokia Erakunde Autonomoen Plantilla Organikoak onartzea, 2012ko ekitaldirako langile finkoei erreserbatutako lanpostu guztiak biltzen dituen.

Hirugarrena.- Onartutako agiriok GAOn argitaratzea Toki Araubideen lege xedapenei buruzko Testu Bateratuko 127 artikulua zehazten duen moduan.

Laugarrena.- Agiri horien kontrako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat jotzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Idazkari andrea

Plantilla horretan akats bat dagoela adierazi du: Kiroi Teknikaria ez dela agertu behar. Plantilla bi lanpostu osatzen dute, Administrazio lanpostu bat eta Mantenu Ofizial lanpostu bat, gaur egun errelebo kontratuarekin dagoena.

Argitu ondoren, bozketa egin da.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 6 (PSE-EE (PSOE) 1, EAJ/PNV 5)

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

10.- 2012 ekitaldiko lanpostuen zerrenda.

Proposamena

Apirilaren 2ko 7/1985 legearen 90.2 artikularekin, Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen eta Euskal Funtzio Publikoaren legearen 14. artikularekin bat etorrituz, Udalbatzari dagokio lanpostuen zerrenda onartzea, eta aurrekontuz hornituta dauden guztiak bildu beharko dituzte, funtzionarioei, langile finkoei eta aldi baterako langileei erreserbatutakoak desberdinduz.

Aipatutako legedian oinarrituz, Idazkaritza eta Kontu-hartzailtza zerbitzuek lanpostuen zerrendaren eredua landu dute, Euskal Funtzio Publikoko Legearen 15. artikulua aurreikusitako beharrezko adierazleekin.

Idazkaritzak eta Kontu-hartzailtzak bidalitako txosten arautua ere irakurri zen, eta horrekin batera dator lanpostuen guztirako kostuaren azterketa eta bere harreman portzentuala, aurreikusitako Sarrera Arruntei dagokionez.

Era berean, hizkuntza normalizazioko planifikazioaren 86/1997 dekretuko 9. artikuluan ezarritako prozeduraren tramitazioa amaituta, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legeko 97 artikuluan ezarritakoaren arabera, hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak ezarri beharko dira lanpostuen zerrenda horretan.

Era berean, Majori Kiroldetgia S.M. Elkarte eta San Jose Egoitza eta Herri Antzokia Erakunde autonomoak 2012rako bere Lanpostuen Zerrendak egin dituzte, dagozkion aurrekontuarekin.

Horiek horrela, honako akordio hau onartzea proposatu da.

AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- 2012rako Lanpostuen Zerrenda onartzea, Udal honen zerbitzura dauden lanpostu guztiak biltzen dituena, aurrekontu diru-hornidura dutenak, akordio honen ERANSKINArekin batera datorren ereduarekin bat.

Bigarrena.- 2012rako Lanpostuen Zerrendak onartzea, Majori Kiroldegi Elkarte S.M. eta San Jose Egoitza eta Herri Antzokia Erakunde Autonomoen zerbitzura daudenak, behar duten aurrekontu diru-hornidurarekin.

Hirugarrena.- Agiri hori GAO n argitaratzea, udal erregimeneko gaietarako indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategineko 127 artikulua eskatzen duenaren arabera.

Laugarrena.- Lanpostuen Zerrendak behin betiko onartutzat ematea, horiei erreklamaziorik aurkeztu ezean.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Rajoyren Dekretua indarrean sartu denetik, 2012 ekitaldi honetan, Lanpostuen Zerrendan dauden lanpostu hutsekin konpromiso publikorik hartu ezin daitekeela azaldu du, eta gure kasuan nahiko lanpostu kopurua handia da, batzuk berriki sortuak eta beste batzuk aurreko legegintzalditik datozenak.

Edozein kasutan, azaldu du oraingoz, eta dekretua betez, lanpostu huts horien konpromisorik hartuko ez den arren, horiek hornitzen joateko oinarriak lantzeko konpromisoa bai hartzen duela bere gain, plazak deitzeko aukera dagoenean, prozedura lehenbailehen hasteko oinarriak prestatuta egon daitezten.

Idazkaria

Jakinarazi du, Plantilla Organikoarekin gertatzen den moduan, Majori Kiroldegia S.M.-ko Lanpostuen Zerrendan akats bat dagoela, Kirol Teknikariaren lanpostua sartu baita, eta ez da agertu behar, lanpostu hau ezin baita, oraingoz, lanpostu huts modura sortu.

Era berean, Administrari lanpostuak ez du titularrik, eta beraz, ez da izenik agertu behar.

Zuzenketak eginda, proposamena bozkatu da.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 6 (PSE-EE (PSOE) 1, EAJ/PNV 5)

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

11. 2011ko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea

Alkateak Berezko Aurrekontuetako likidazioak, "San Jose" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioak eta "Herri Antzokia" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioa onartu ondoren, Gipuzkoako Toki erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.3 artikulua betetzeko, likidazio hauen berri ematen da Osoko Bilkuran:

| | Aurrekontuen emaitza | Diruzaintzako aurrezki garbia |
|--------------------------------|----------------------|-------------------------------|
| Berezko Aurrekontua | 759.023,88 | 1.056.133,30 |
| "San Jose" Erakunde Aut. | 25.971,61 | 14.009,12 |
| "Herri Antzokia" Erakunde Aut. | -17.598,05 | -39.774,33 |

BEREZKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA (2011)

BEREZKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA (2011)

| | |
|--|-------------------|
| Diruzaintza soberakin gordina | 1.815.541,98 |
| Kobratzea zalantzakoa den saldoak | -759.408,68 |
| Diruzaintza soberakin garbia | 1.056.133,30 |
| Sartutako kredituaren espedientea | -841.570,41 |
| 2010eko gastuak sartzea | -57.851,83 |
| Eskura dagoen soberakina | 156.711,06 |
| Aurrekontuaren emaitza (doikuntzak egin ondoren): | 759.023,88 |
| Kreditu gehigarriak 2011n | 574.383,15 |
| 2011ko hasierako aurrekontua | 11.098.393,00 |
| Kreditu gehigarrien hazkunde portzentajea (2011) | 5,18% |
| Kreditu gehigarrien hazkunde portzentajea (2010) | 4,84% |
| Kreditu gehigarrien hazkunde portzentajea (2009) | 2,96% |
| Kreditu gehigarrien hazkunde portzentajea (2008) | 1,35% |
| Sarrerren gauzapen maila | |
| 1 kapitulua (Zuzeneko zergak) | 108,00% |
| 2 kapitulua (Zeharkako zergak) | 133,56% |
| 3 kapitulua (tasak eta beste diru-sarrera batzuk) | 110,60% |

“SAN JOSE ZAHARREN EGOITZA” ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

| | |
|------------------------------------|-----------|
| Diruzaintza soberakin gordina | 72.723,34 |
| Kobratzea zalantzazkoa den saldoak | 58.714,22 |
| Diruzaintza soberakin garbia | 14.009,12 |

Aurrekontuen emaitza 25.971,61

| | |
|---|------------|
| 2011n Udalen zorpetutako zenbatekoa | 32.377,72 |
| Udalen zorra (2005-2010) | 208.041,45 |
| Ordiziako Udalari itzuli behar zaion mailegua | 202.299,44 |

“HERRI ANTZOKIA” ERAKUNDE AUTONOMOKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

| | |
|------------------------------------|------------|
| Diruzaintza soberakin gordina | -39.774,33 |
| Kobratzea zalantzazkoa den saldoak | 0,00 |
| Diruzaintza soberakin garbia | -39.774,33 |

Aurrekontuen emaitza -17.598,05

| | |
|---|--------|
| Sarreraren gauzaperen maila | |
| 3 kapitulua (Tasak eta beste diru-sarrera batzuk) | 97,23% |
| 4 kapitulua (Udalaren ekarpena) | 79,78% |

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontu-hartzaile jaunak

Koordinazio akatsa bategatik, Herri Antzokiko Aurrekontuak udal ekarpenaren zati bat zenbatu gabe geratu dela, guztira 27.490 €.

Gainera, Udalaren ekarpenaren sarrera zine digital sistema berrirako, finantzaketaren desbideratze hartu edo kalifikatu da, diru-sarreraren errekonozimenduaren “R”-a jartzea zuzenagoa izan balitz ere.

Datu horiek kontuan izanik soberakina 36.873,07.-€-koa da eta urteko emaitza 9.891,75.-€-koa.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

12.- 2011ko gastuak 2012ko aurrekontuan sartzeara eta dagokion kreditu gehigarrien espedientea onartzea.

Proposamena

2011 urtean zehar aurrekontuan gorde gabeko gastu batzuk egin ziren zenbait partidatan.

2011 urtea itxi baino lehen, gainezkatze hauek konpontzen ahalegindu ginen ahal zen neurrian, Kontabilitateak 57.851,83 euroko fakturak kenduz.

Gastu hauek 2012ko Aurrekontuan sartu ahal izateko finantziarioa egitean hiru aukera daude:

- 1.- 2012ko partidatan kredituak handitzea, sartu behar dituzten gastuen neurri berean.
- 2.- 2011ko gastuak bere gain hartuko dituzten partidetakoa arduradunei 2012rako aurreikusi dituzten gastuak bertan behera uzteko eskatzea, sartu behar diren 2011ko gastuen neurri berean.
- 3.-Bi aukerak konbinatzea, egindako gastuan borondate mailaren arabera.

Gaia onartzeko premia dago, ordaindu gabeko fakturak baitaude.

Gipuzkoako Toki-Erakundearen aurrekontua arautzen duen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34 artikulua araberako, 2011ko martxoaren 21ean Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordeak gaia aztertu eta gero, honako hau onartzeko proposamena egiten zaio Osoko Bilkurari.

AKORDIO PROIEKTUA

2012 urteko Aurrekontuetan 2011 urteko gastuak sartzeara, 57.851,83 euroko zenbatekoarekin.

Kreditu gehigarrien 1. zenbakidun espedientea onartzea 2012ko aurrekontuan, 57.851,83 euroko zenbatekoarekin, aipatutako gastuak sartzeara finantzatzeko.

AURREKONTU KREDITURIK GABE BURUTUTAKO GASTUAK 2011AN

| PARTIDA | KONTZEPTUA | EUROAK |
|---------------|--|----------------------|
| 226.111.00.03 | Ordizia propaganda Bidera Banaketa. Bandoa jarri, aldizkaria banatu,... | 1.677,37 1.677,37 |
| 227.111.00.07 | Gobernu organoa, kontratuak Matia Innova. Irisgarritasun plana | 6.265,80 6.265,80 |
| 210.222.12.01 | Bide-seinaleak mantentzea Paskin Seinalizazioak, S.L. | 1.711,59 |

| | | |
|---------------|--|------------------|
| | | 1.711,59 |
| 227.223.10.01 | Babes Zibila. Garbiketa | |
| | Aita Urdaneta, 7-ko bizilagunak | 734,13 |
| | | 734,13 |
| 226.313.30.05 | Drogamenpekotasunari aurre hartzeko eskualde mailako egitasmoak | |
| | Usurbe Antzokia 19-12-2011 (Peter Roberts) | 549,41 |
| | | 549,41 |
| 625.313.83.01 | Eguneko Zentroko altzariak | |
| | Sesenta Plus, S.L. 5 takilla | 1.003,00 |
| | | 1.003,00 |
| 227.422.11.02 | Jakintza ikastolaren segurtasuna | |
| | Aege Sistemas | 435,44 |
| | | 435,44 |
| 211.422.12.01 | Eraikinen mantenua, Urdaneta ikastetxea | |
| | Alonso | 81,74 |
| | | 81,74 |
| 623.422.12.04 | Urdaneta eskolako tresnak eta erremintak | |
| | Alonso | 58,88 |
| | | 58,88 |
| 211.425.00.01 | Hizkuntza Eskolako mantenua | |
| | Persianas Torre | 1.207,14 |
| | | 1.207,14 |
| 480.432.10.01 | Birgaitzeko lanentzako diru laguntzak | |
| | Goierrri kalea, 12-ko Jabekideei diru-laguntza | 6.326,71 |
| | Nafarroa kalea 4-ko Jabekideei diru-laguntza | 8.136,23 |
| | Urdaneta kalea, 27-ko Jabekideei diru-laguntza | 3.996,12 |
| | | 18.459,06 |
| 212.434.11.01 | Lorezaintza. Mantenu-lanak. | |
| | Apain | 680,40 |
| | Apain | 118,00 |
| | Inteman | 1.153,62 |
| | | 1.952,02 |
| 214.434.11.01 | Parkeko altzariak. Mantenu-lanak | |
| | Ogei. | 1.029,33 |
| | | 1.029,33 |
| 226.434.12.99 | Oiangu Parkea zenbait gastu | |
| | Aracarpas. Karpa irailak 6-30 | 1.817,51 |
| | | 1.817,51 |
| 221.443.00.99 | Hilerriko materiala | |
| | Apain | 1.071,74 |
| | | 1.071,74 |
| 481.454.11.01 | Auzoetako jaiei diru-laguntza | |

| | | |
|---------------|---|------------------|
| | Fiestas de escarabilla | 2.000,00 |
| | Fiestas Otegienea /Majori | 2.000,00 |
| | Fiestas de Altamira | 2.000,00 |
| | Aracarpas. Escarabilla karpa | 2.524,33 |
| | | 8.524,33 |
| 226.455.10.99 | Euskara Saila. Zenbait gastu | |
| | Ttakun. Lagunarteko hizkerarekin jolasean Oianguren BHI | 636,00 |
| | | 636,00 |
| 623.469.10.04 | Gaztelekuko tresnak | |
| | Kirol Aukera. 2. eskuko billarra | 1.551,70 |
| | | 1.551,70 |
| 626.469.10.01 | Gaztelekuko ekipo informatikoak | |
| | Urdaneta Ordenagailuak ordezkatzea | 2.827,28 |
| | | 2.827,28 |
| 210.511.00.01 | Kaleen mantenua | |
| | Disol. Proosol | 352,82 |
| | Goierriko Tresna Koop. Bide garbiketa | 1.064,36 |
| | Apain | 388,58 |
| | Apain | 331,08 |
| | Apain | 180,27 |
| | Apain | 263,83 |
| | | 2.580,94 |
| 226.622.30.92 | Asteko Merkatuaren animazioa | |
| | D'elikatuz. Txistorra lehiaketarako materiala | 646,35 |
| | | 646,35 |
| 226.622.30.99 | Azoka. Zenbait gastu | |
| | Centauro. Kamiseta poltsak (50.800) | 1.762,35 |
| | | 1.762,35 |
| 226.622.31.97 | Ardo azoka eta Gazta Txapeldunen Lehiaketa | |
| | Repartición de vasos. | 81,10 |
| | Itor | 342,81 |
| | D'elikatuz | 493,58 |
| | | 917,49 |
| 226.622.40.99 | Merkataritza dinamizatzeko egitasmoak | |
| | Aralar. | 312,29 |
| | Aralar. | 38,94 |
| | | 351,23 |
| | GUZTIRA | 57.851,83 |

Gastu horiek, eta 2011ko Aurrekontuetako partidei zegokiena gainditu dutenak erabat baliogabeak dira. 2011n egindako gastuei dagozkie 2011 urteko aurrekontuak, baina bertan kontabilizatu ezin direnez, 2012ko Aurrekontuan kontabilizatu behar dela ikusten da, urte bereko ekitaldian egindako gastuak bakarrik onartzen dituelako.

Osoko Bilkuraren erabakia behar da, 2011ko gastuak 2012ko Aurrekontuan sartzea onartzen duena. Horretarako, 2012ko partiden aurrekontu hornidura handitu edo 2012an egin beharreko gastuentzako kredituak jaitsiko lirateke.

Borondatezko gastuetan desbideratzeak arduradunek azaldu behar dituztela uste dut, eta azalpena sinesgarria ez bada, hurrengo urteko gastu mailan eragina izan behar dutela, eta beharrezkoa bada, erantzukizun pertsonalak aplikatu beharko liratekeela.

Mantentze-lanen gastuetako desbideratzeek adierazten dute egin beharrezkoa hobeto definitu behar dela eta urtean zehar egiten dena gehiago kontrolatu behar dela. Ordizian 2012ko otsailaren 27an Kontu-hartzaileak,

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5 (EAJ/PNV)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

13.- Udal taldeen eta zinegotzien dietak eta ordainak murriztea.

Proposamena

2011ko ekainaren 30eko ez-ohiko osoko bilkuran, Tokiko Oinarri Arautzaileen 7/85 Legeko 75 artikuluan onartu ziren Udalbatzako kideen ordainsariak eta kalte-ordainak. Akordio hori 2011ko uztailaren 21eko datako osoko bilkuran gauzatu zen, eta Legearen arabera, kideek kide anitzeko organora joateko baldintza zuten esleipen horiek.

Krisi orokorreko egoera dela eta, eta zehazki, Udalaren aurrekontua dela eta kontuz ibili beharra dagoenez, Alkatearen, Zinegotzien eta talde politikoen dietei % 5eko murrizketa gitea proposatu da.

2012ko martxoaren 21eko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Dieta eta esleipen hauek murriztea:

- Udal talde bakoitzeko esleipenak 140 eurora/ hilean
- Saileko Ordezkarari diren Zinegotzien esleipena 615 eurora / hilean.
- Ordezkaritzan ardurarik ez duten zinegotzien esleipenak 310 eurora /hilean.

2.- 2011ko uztailaren 21eko osoko bilkuran onartu ziren bertaratze baldintzak mantenduko dira, eta gehituko zaio, Ordezkarari ez diren Zinegotziek bilkura arruntetara joateagatik 100 euro jasoko dituztela.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: (PSE-EE/PSOE 1)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

14.- Euskara sailak diru-laguntzak emateko indarrean dituen oinarriak aldatzea.

Proposamena

Tokiko Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen 7/85 legeko 25. artikulua, udalei egozten die, beren eskuduntzen barne, edozein jarduera mota sustatzeko eta bizilagunen behar eta nahiak asetzera bideratutako zerbitzu publikoak bultzatzeko zeregina.

Lege horren 28. artikulua beste Administrazio publiko batzuekin batera, bere jarduera osagarriak egiteko aukera ematen die, eta zehazki, hezkuntzari eta kulturari dagozkionak.

Herritarren behar eta nahi horiek betetzeko, udalak zenbait bitarteko ditu, eta horietako bat diru-laguntzen bidez egiten den sustapen jarduera da.

Administrazio Publikoek ematen dituzten diru-laguntzen araubide juridikoa azaroaren 17ko Diru Laguntza Orokorren 38/2003 legeak araututa dator.

Lege horren 17.2 artikulua ezartzen du tokiko tokiko erakundeek emandako diru-laguntzen oinarriak ordenantza bidez onartu beharko direla.

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua araberan, Udaleko Osoko Bilkurari dagokio ordenantzak onartzeko eskumena.

Legearen 49 artikulua ezarritakoari jarraituz, Ordenantzak onartzeko ondorengo prozedura jarraituko da:

- a) Osoko Bilkurak hasieran onartu.
- b) Jendaurrera zabaltzea eta interesatuentzako entzunaldia hogeita hamar eguneko gutxieneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.
- c) Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztien ebazpena, eta ondoren osoko bilkurak behin betiko onartzea.

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin-behineko erabakia behin betiko erabakia izatera pasako da.

2012ko martxoaren 21eko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- 2012an euskara alorreko diru-laguntza emateko oinarriak aldatu daitezela onartzea.

2.- Ordenantza hori jendaurrean jarri beharko da 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan, eta interesatuta daudenek aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei tartea eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, Ordenantzak behin betiko onartutzat joko lirateke, beste erabakiren beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Imanol Iturriotz jn.

Labur-labur adierazi ditu aurreko oinarriei dagokionez izan diren aldaketak.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, EAJ/PNV 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

15.- Aparkaldi mugatua arautzen duen Ordenantza aldatzea.

Proposamena

Aparkaldi mugatuko eremuak arautzen dituen eta indarrean dagoen Ordenantzaren berri ematen da. Ordenantzaren 3. artikuluan aparkaleku mota horrentzako plaza kopuruak eta kaleak zehazten dira, eta ibilgailuak gehienez ordu erdi aparkatzeko baimena ematen du.

Aipatutako Ordenantzaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, Osoko Bilkuraren akordio bidez eta Ordenantza aldatzeko egin behar izaten diren tramiteetara jotzeko beharrik izan gabe, alde zuretik dagozkion txosten teknikoak izanda, zehaztutako kaleetako edozeinetan indarrean egongo den aparkaldi mugatua aldatu ahal izango da.

Udaltzaingoko Buruaren txosten-espeditentia agertzen da, eremu horietan ordutegia zabaltzea komenigarria dela jakinaraziz, 30 minututik ordubetera.

2012ko martxoaren 5eko Tokiko Gobernuaren Batzordea, proposamen hori komenigarria dela onartu eta oniritzia eman dio. Baina Garagartza Plazako eremuan aparkaldi mugatua ordubetera zabaltzea ez da onartu eta 30 minutuko muga izaten jarraituko du.

2012ko martxoaren 21eko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

* **Aparkaldi mugatuko eremuen Ordenantza Arautzailea aldatzea, eta udalerrian eremu urdineko aparkaldi mugatua ordubetera zabaltzea, Garagartza Plazan izan ezik. Bertan 30 minutuan mantenduko da.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo in.

30 minututik ordubetera aparkaldi mugatuko gehienezko denbora zabaltzea komeni dela eta egokia dela azaldu du, Garagartza plazan izan ezik, bertan gehienezko denbora-epea 30 minutukoa baita oraindik ere.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

16.- H.I.E. Garbiguneko arau subsidiarioen aldaketa jakin baterako hirigintza hitzarmena.

Proposamena

Ordiziako H.I.E. "Garbigune"-ko Arau Subsidiarioen aldaketa puntual baterako, espedientea hasten dela jakinarazten da, Sasieta Mankomunitateak sustatuta eta José M^a Aseginolaza eta Javier Tellería arkitektoek idatzia, ATARKI Elkarte, S.L. enpresakoak.

Dokumentu horretan, dagozkion legezko lagapenez gainera, Ordiziako Udalak eta Sasieta Mankomunitateak honako obra hauek % 50ean elkarrekin finantzatzeko hartzen dituzten konpromisoak:

- 1.- Oiangura igotzeko bidearen zatia berriz urbanizatzea eta ibilbidea zuzentzea Goierri Eskola Profesionaleko aparkalekuraino.
- 2.- Eskuin aldean espaloi bat gauzatzea gorako norabideak, eta zati hori berriz asfaltatzea, ura biltzea eta argizatzea.
- 3.- Lagapeneko lursailaren plataforma gaitzea behar den bezala, udal zaborraren bilketa puntuak eta autoen deposituak ondo funtzionatu dezan.

Lan horiek 114.668,20 euro balio izango dute, eta % 50era finantzatuko dituzte Sasieta eta Ordiziako Udalak.

Gainera, Sasieta Mankomunitateak bere jabetzapeko lursailak lagatzeko konpromisoa hartu du, antolakuntza berriaren arabera H.I.E. Garbigune berriaren mugetatik kanpo geratzen direnak.

Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriak ezarritakoaren arabera, hirigintza hitzarmena onartu eta sinatu behar da, bi aldeek Eremuaren garapenean beren gain hartzen dituzten betebeharrak bilduko dituen.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua dioenari jarraiki, Tokiko Erregimenaren Oinarriak erregulatu dituen, Osoko Bilkurari dagokio hirigintza hitzarmena onartzea.

2012ko martxoaren 21eko Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

- 1.- Ordiziako Udalaren eta Sasieta Mankomunitatearen artean Hitzarmen proposamena onartzea, atxikita doen H.I.E. "GARBIGUNE"-n indarrean dagoen planeamendua aldatzeko.
- 2.- G.A.O.-n informazio publikoan ezarri 20 egunez, eta epe horretan alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin betiko onartutzat joko litzateke.
- 3.- Alkatea ahalmena eman behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Ordiziako Udalaren eta Sasieta Mankomunitatearen artean hirigintza hitzarmena sinatzeko arrazoia zein izan den azaldu du. Sasietak Garbiguneko espaloia lanak gauzatzen ari den edo gauzatuko dituen enpresaren esleipena justifikatu behar zuen, eta bi entitateek %50ean finantzatuko dituzte.

Modu egokiena hirigintza hitzarmen bat sinatzea da, bi aldeek konpromisoak biltzen dituen eremuko arau subsidiarioen aldaketa puntualari, eta gero bere garapenari begira.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

17- Eskaerak eta galderak

Bitton Bolinaga jaunak azaldu du Otegi-Eneako jaien Antolakuntzako kide dela eta dio auzoko tabernari eta ostalariak nahiko haserre daudela Udalak mahaitxoan eta terrazen inguruan hartuko dituen neurriekin, beraiekin izandako bilera batean jakinarazi diotena.

Alkate jaunak eta Asenjo jaunak erantzun diote, gaia oraindik lantzen eta aztertzen ari dela.

.....

Dubreuil jaunak Alkate jaunari galdetu dio auzoekin izan dituen bileretan bizilagunek egindako salaketa eta iradokizunei nola egingo dien aurre.

Asenjo jaunak erantzun dio egindako eskariei erantzuten joango dela.

.....

Santamaria jaunak 2009ko dekretu baten inguruko informazioa eskatu du, Udalarentzat Eusko Jaurlaritzak finantzaturako + Euskadi 09 programan aritu zitezkeen sektoreei diru-laguntzak ematen zizkiena.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.